

# GUaixe.eus



**II. Triku Trail** mendi lasterketa igandean Etxarrin



Kirolak >> 13

Izurdiagan, Uharte Arakilen, Arruazun, Arbizun, Unanun, Lizarragabongoan eta Altsasun festak ditugu



Sakanerria >> 14

## Udalen energia diagnosis egina



>> 7

Maite dugu aniztasuna, berdintasuna, errespetua >> 3

Enpresek kooperazio tresna berria dute

SEEk bere web orrian Sakanako Enpresen Sarea sortu du >> 5

V. Sakana Burunda bizikleta martxa bihar >> 11

Lakuntzako antzerki tailerra eszenara

Blas Alegriaren Aña Mari obraren moldaketa jokatu du >> 15

Osasun zerbitzua euskaraz eskatuz 600 sinadura >> 3

Galtzadak azaleratzeko nazioarteko auzolandegia



>> 9



## Jentila, Sakanaren irudia

Sakanako Mankomunitateak eta Sakanako Garapen Agentziak ingurumenaren, kulturaren eta iraunkortasunaren inguruko balioak zabalatzeko erabiliko dute

Sakana Animatika 3D Enplegu Tailer Eskolak (S3DA) Sakanaren ordezkarri bilakatu du. +www.guaixe.eus

Sakanako gida

IRAGARRI NAHI DUZU?

AZKEN EGUNA: UZTAILAK 31

Sakanako gida 2015-2016



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860




**Oihan Yeregui**  
ZORIONAK Arbizu eta Aguraineko familiaren partetik. Egun ona pasa eta muxu pilo bat!

**Oihan Yeregui**  
ZORIONAK txikito zure 6. urtebetetzean! Egoitz, aita eta amaren partetik. Muxu handi bat!



ESKERRIK ASKO eman didazuen jardunaldiari esker. Zuen hutsunea sumatuko dut. Hoberenak zarete!!



**Ange**  
ZORIONAK amatxo!! Egun zoragarria izan. Muxu asko, asko, asko!! Etxekoan partez.

**Usua**  
ZORIONAK presios-saa! 2 urte!!!! Hobe berandu... Muxu handi handi bat Iraia, Oier eta izebaren partez!

## garagarriak-garilak 26-2

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net



La banda del jefe Bigun bihar Altsasun ariko da.

### Musika

**Rocio Madreselva.** Garagarriaren 27an, larunbatean, 20:00etan Arbizuko kanpinean.

**La banda del Jefe Bigun.** Garagarriaren 27an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Urtzi tabernan. 25. urteurrena.

**The long boards.** Garagarriaren 27an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Gernika tabernan.

**Lena Andrea Ullrich.** Garagarriaren 27an, larunbatean, 24:00etan Arbizuko kanpinean.

### Antzerkia

**Ama Mari.** Garagarriaren 28an, igandean, 19:00etan eta 20:00etan Lakuntzako plazan. Lakuntzako antzerki tailerra.

### Bizikleta irteerak

**Irati Extrem.** Garagarriaren 27an, larunbatean, 8:00etan. 128 km. Zikloturista taldea.

**23. Gasteizko Zeharkaldia.** Garagarriaren 28an, domekan, 8:30ean Altsasuko plazan. 40 km. Barranka Txirringuluri Taldeko mendi bizikleta taldea.

### Ibilbideak

Berrenoako galtzada, toponimia

**ibilbidea.** Garagarriaren 27an, larunbatean, 9:00etan Etxarri Aranazko plazatik abiatuta. **Azalpenak: Jose Luis Erdozia.**

### Bestelakoak

**Udako festa.** Garagarriaren 26tik 28ra, ostiraletik igandera, Arbizuko kanpinean. **Amari.**

**Bazkari internazionalista.** Garagarriaren 27an, larunbatean, 14:30ean Arruazun.

**Ur festa goxoa.** Garilaren 2an, ostegunean, 21:00etatik 23:30era Irurtzungo igerilekuan. 12 urteetatik aurrera.

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Garagarriaren 26an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uhartte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Garagarriaren 28an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Elkartasuna ez da delitua! Herria zurekin!** Garilaren 2an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko udaletxe parean. Eburnekin bat.

## San Joan sua Sakanan



**Lakuntza.** Gauetz ezkilak jo zituzten. Bitartean, auzatea egon zen kanpandorreen.



**Etxarri Aranatz.** Etxarriarrak gogoz aritu ziren saltoka.



**Urdiain.** San Joango kantaita entzun ondoren, saltatzera animatu ziren urdiaindarrak.



**Altsasu.** San Juan ermitatik bueltan suak, dantzak eta afariak ez ziren falta izan.

# Ostiraleko SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Udalen energiaren diagnosis
- Immigratio Zerbitzuaren udako kanpaina
- Etxarri Aranazko osasun etxean euskarazko zerbitzu eskaera

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Esataria: Alfredo

107.3 FM

# beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

**ARAKILDIK ALBAOLARA:** Arakilgo Udalak garilaren 5erako irteera antolatu du Pasai Donibanera. 10:00etan abiatuko dira autobusak eta Albaola itsas faktorian San Juan

baleontziaren eraikuntza ikusiko dute. Bazkaria ere izanen da. Izen ematea astearterako udaletxean egin behar da.

# ezkaatza >>

## SAKANA

# 600 sakandarrek Etxarriko osasun zerbitzuak euskalduntzeko eskatu dute

**Osasun etxeko eta Emakumeari Laguntzeko Zentroko osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskaerak Osasun eta Hezkuntza Departamentuei, Arartekoari eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiari aurkeztuko dizkiote**

Etxarriko Osasungintza Euskaraz lantaldeak bulkatuta *Mediku euskalduna nahidut* kanpaina egin da apirila erdialdetik hona. Eskaera hori egiten duten 592 sakandarren sinadurei Sakanako ikastetxe publikoetako orientatzaile guztiak eta ibarreko bi ikastolak batu zaizkie. Etxarritik kanpo kanpaina zabaldu izanaren arrazoiak bidira. Bate-tik, Etxarriko Oinarrizko Osasun Eskualdeak Urdiain eta Lakuntza arteko herritarrak artatzen dituela, eta Emakumeari Laguntzeko Zentroa Sakanatik Leitza alderaino iristen dela.

Etxarriko alkate Eneka Maizek nabarmendu zuenez, "egungo egoeraren ardura Nafarroako Gobernuari dagokio". Hari zuzendutako eskaeretan plantilla organikoan euskara eskakizuna zehaztea eskatu dute, lehenik. Bigarrenik, dagoeneko lanean ari diren eta beharra duten langileek euskalduntze plan bat izatea. Eta, azkenik, idatzizko euskarriak ere eus-



Etxarriko osasun etxeko zerbitzuak euskaraz izateko eskaera egin duten taldeetako eta erakundetako ordezkariak.

karaz egotea bermatu dadila (hizkuntza paisaia, agiriak, zitazioak, txostenak, aholku-zerrendak...). Maizek berak aurkeztuko ditu eskaerak heldu den astean.

Jasotako sinaduren aurkezpenean Etxarriko EHEko Maider Ansak gogora ekarri du Nafarroako Euskararen Legearen 10.1 artikulua osasun zerbitzuak euskaraz jaso ahal izatea aitortzen duela. "Nafarroako Gobernuak, ordea, behin eta berriz entzungor egin dio bere eginbeharrari. Etxarriko plantilla organikoa ikustea beste-

rik ez dago: 4 mediku lanpostutatik 1ek eta 4 erizain lanpostutik 2k dute hizkuntza eskakizuna" adierazi zuen Ansak, gaineratuz "egoera are larriagoa da Emakumeen Laguntzarako Zentroan lanpostu bakar batek ere ez baitu hizkuntza eskakizunik".

### Ikastetxeen kexa

Sakana-Larraun-Leitza Eskola Barrutietako ikastetxeetako orientatzaileek salatu dutenez, "Orientazio Psikopedagogikoaren alorrean Etxarriko Emakumeen

Arretarako Zentroan diharduen sexualitateko hezitzaileak funtsezko paper bat betetzen du". Sexualitatearen Heziketa euskaraz izatea eskatu zuten: "Etxarri Aranatzaren aritzen diren Emakumeen Arretarako Zentroko langileak euskaldunak izatea, eta bereziki Sexualitatearen hezkuntzan Sakana-Larraun-Leitza Eskola Barrutietako ikastetxeetan aritzen den profesionala". Ikastolek eta zenbait irakaslek ere bere egin dituzte kanpainako eskaerak. +www.guaixe.eus

## Maite dugu aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza



Arruazu, Uharre Arakil eta Urdaingo udal ordezkariak teknikariek batera.

**Immigrazio Zerbitzuaren udako kanpainak mezu horiek zabalduko ditu. Lau balore horiekin festak bertakoak eta bertaraten garen denok gozatzeko deia egin du**

Aste honetatik aurrera piztuko diren festetako etxaju guztietan udaleko kideak kamixeta beltzez jantzita ikusiko ditugu. Haietan *maite dut aniztasuna, berdintasuna, errespetua eta diskriminazio eza* leloa irakurriko da. Horretaz aparte, udaletxeetan lelo bera duen pankartzazintzilikatuko da eta hura ere

festetako programan agertuko da.

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuko teknikari Bego Zestau Baraibarrek azaldu duenez, kanpainaren bidez "sakandarrak zurrumurru, aurreiritzi eta estereotipoen aurrean duten jarreraz hausnartzera gonbidatu nahi ditugu". Barrura begiratzen jartzeko gonbitea egin zuen: "barnean sentitzen dugun aniztasuna, berdintasuna, errespetua diskriminazio eza mailaz ohar gaitezten.

Behin onartuz gero gure baitan bizikidetzatza baikor baterako aldaketak egiteko aukera aurki dezagun". Noizbait etorkin bihur gaitezkeela eta harrera gizartearen zein tratu nahi genukeen hausnartzeko gonbitea egin zuen.

Zestauk berak aitortu du aniztasunaren kudeaketa ez dela erraza eta kanpainako leloko lau hel-

buruak ez direla egun batetik bestera lortzen. "Baina baikortasunak alde zailak kudeatzea laguntzen du. Jai giroan denok alaiago gaude eta garai polita da balore eta balio hauetaz jabetzen, barneratzen eta adierazten hasteko". Zeregin horretan harrera gizarteak eta etorkinak egiteko dutela azaldu du Zestauk. +www.guaixe.eus

**GANUZA ANAIK**  
www.cocinasganuza.com

**Sukaldeko altzari lantegiak**  
Bainu gelako altzariak | Horma armairuak | Etxetresna elektrikoak




**Finantzatze aukera**

f c.ganuza@cocinasganuza.com

Zumardiñeta industrialdea | 948 460 203 | Faxa: 948 460 673 | Etxarri Aranatz



## Nonerabili

### IKER KIROLAK

#### ALTSASU

50 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

### URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

#### ETXARRI ARANATZ

% 20ko deskontua kontsultan.

### BASOMUTUR

#### ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

### BILTOKI TABERNA

#### ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

### IÑAKI OINETAKOAK

#### ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

### GERTU SAKANA

#### ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketan egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

### AINHOA ESTETIKA

#### IRURTZUN

Utsusuky packetan, % 30eko deskontua.

### ASENSIO

#### ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

### IL PADRINO

#### ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai





Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

astekoa

## Laister arte!

Azken bi urte hauetan Guaixeren irakurleokin elkartzeko aukera izan dut, zuekin hainbat kezka eta gogoeta konpartitzeko. Lagunekin kafe bat edo ardo bat hartzerakoan eginiko hausnarketak banatu ditut, eztabaidak eta ideia trukaketak guztiok aberasten gaituztela pentsatzen dudalako. Gure

hizkuntzan, gure egunkari batean gure arazoei buruz idazteko txokotxo bat izatea pribilegio handi bat da eta bihotzez eskertzen diet aukera Guaixeren erredaktoreei. Baina uste dut aukera hori merezi duen jende asko dagoela gure Sakanan.

Berdeak alderdi politiko bezala

sortuzirenean, 1980an Alemanian, txandatzeko printzipio bat jasozuten beraien estatutuetan. Inorezin zen bi urte baino gehiago kargu batean egon, ez alderdian, ez parlamentuan, ez edozein instantzian. Horrekin botere abusua eta kargu desberdinen pilotzea galarazi, edo gutxienez zailtzea nahizuten. Gure

politikoen artean ondo ezagutzen eta sufritzen ditugun portaerak. Baina Alemanian gauzak ez dira hain desberdinak eta berdeek 1991n printzipio hori baztertu egin zuten alderdiaren estatutuak aldatuz.

Ez da printzipio txarra eta, nire bigarren urte hau bukatzerakoan, pentsatu dut txandatzeko prin-

tzipioa neure buruari aplikatzea ez legokeela gaizki. Ez diot honekin agur esaten Guaixeri, baina orain arte izan dudana txokotxo hori beste sakandar baten esku utzi nahi nuke. Ditugun aukerak eta baliabideak konpartitzeko direlako. Udara ona izan denok eta laister arte.

## barrutik kanpora Hezkuntza

Google Teacher Prize sarirako hautagai izan zen Zaragozako Cesar Bona irakaslea. Hori dela eta ezagutu genuen bere lana. Cesar Bonak ikastetxean egiten zuen antzekotasun handia du denboraren kutxetan egiten denarekin, Bonak beste izen bat ematen bazion ere.

Berak antolatutako egitasmoan

aitona-amona batzuek eta euren bilobek hartzen zuten parte. Irakasleak honakoa proposatzen zien ikasleei: aitona-amonei galdetzea zer izan nahi zuten txikitik eta zer orain. Biloben bitartez eta irakasle honi esker, aitona-amonek ahaztuta zituzten amesek argia ikusi zuten. Amona batek futbol atezaina izan nahi zuen. Futboleko arro-

pak jantzi, baloi handi bat hartu eta bilobei gola sartzen ahalegindu zen. Entzuteko moduko barreakegin zituzten bilobek amona praktikiak jantzita baloi handi hura ezin harrapatuz ikustean. Beste amona bat hegazkin pilotua izateko irrikitan zegoen. Gurpileko aulki batean eseri, kartoizko bi hegal magalean utzi, igeri egite-

ko betaurreko batzuk jantzi, txano bat eta bideetan barna eramane zuten korrika bilobek amona, hau barrez lehertzeko zorian zegoela. Eta horrelako beste hamaika gertakari, aitona-amonak protagonista izan zen aitona-amonen poza ikustea, beraien amesetan murgildurik zeudela. Ziur aski ez dute seku-

la ahaztuko egun hartan bizitakoa. Belaunaldi ezberdinak, baina balio aberasgarriak elkarrekin trukatu zituztenak.

Denboraren trukeak ez du preziorik dirutan, bai ordea pertsonaren aberasgarritasunean.

**Larrezabal denboraren kutxa**  
[larrezabaldk@inigoaritz.com](mailto:larrezabaldk@inigoaritz.com)

## hara zer dien

### Zertan ematen dute eguna Alzheimer gaixotasuna duten gaixoei

Eguneroko ekintza arruntak dira egunez egun gure denbora betetzen dutenak. Eguneroko gauza txiki horiek izaten dira gure nortasuna osatzen, nor garen gogorarazten, laguntzen gaituztenak.

Borroka horrek behartzen gaitu, eguneroko horri, modu ezberdinetan aurre egiten. Ekintza berriak gehituz, azkenean ohikoak bihurtuz, horrek lagunduko gaitu, galdu genuen hutsune hori osatzen.

Alzheimer gaixotasuna borroka luze eta gogor bat da. Mundu berri bateraiki behar da eta. Zein tresnekin? Maite ditugun pertsonekin, zaletasunekin, gozatzeko

kapazitatearekin, eguneroko apustu handi eta txikiekin.

Egunean zehar egin beharreko ekintzak ongi sailkatzea ezinbestekoa da. Atsedena ere bai, noski. Erronka txikienak osatzen dute; garbitasun pertsonala, gosaria prestatzea, erosketa egitea, etxeko lanetan parte hartzea eta abar.

Ariketa fisikoa garrantzitsua da, baita ere masajeak daraman fisioterapia motaren bat. Beste pertsona batzuekin elkartzea, taldeko elkarrizketetan parte hartzea, psikoestimulazio ariketak egiteak ere laguntzen du; gure garuna aktibo edukitzeko modu bat da. Ohartzen garene-

an gaixotasunarengatik gure hitz egiteko bitartekoak edo gure sentimenduak adierazteko gaitasuna murrizten doala, gure eguneroko lanetara, lan berriak edo zeregin berriak gehitzea komenigarria da. Horretarako, ekintza berriak, sormen handikoak, eskulanak, marrazketa, dantza, kantua eta abar egokiak dira.

Egun berri bat ekintzez betetzeko eta bertatik eraikitzeke gure historia, historia berria gaixotasunaren bitartez, eta honek ekar diezazkigun aukera berriak.

**Josefina Arregi klinika**

## objektibo tik



**Denboran barnako bidaia:**

Garai baterako kontakizun, pasadizo eta istorietarako bidea ematen du su hipnotikoak. Haren inguruan bilduta partekatzen dira pasarteak. Suak ere aspaldiko emakumezkoen jantziak ateratzen ditu Urdiainen.

objektibo tik: [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)  
eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano  
**ZUZENTZAILEA:** Maria Luisa Zelaia Mendia  
**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • [bierrik@guaixe.eus](mailto:bierrik@guaixe.eus)  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • [argi@guaixe.eus](mailto:argi@guaixe.eus)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

**LAGUNTZAILEAK:**

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
s a k a n a

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Salburuzordetza

**OLATZAGUTIKO MUSIKA ESKOLA:** Irailaren 4ra arte izen ematea zabalik dago. Udaletxetik pasa behar da. Eskolaren eskaintza honakoa da: pianoa, saxofoia, gitarra,

gitarra elektrikoa, bateria, eskusoinua, trikitixa, musika eta mugimendua, abesbatza eta instrumentu taldea.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Enpresek kooperaziorako tresna berria dute

**Sakanako Enpresarien Elkarteak bere web orria berritu eta Sakanako Enpresen Sarea tresna dinamikoa sortu du. Ibarreko enpresa ehunaren irudi erreala ematen du, enpresen arteko elkarlana erraztu eta sinergiak dinamizatzeko balioko du**

Sakanako eta Nafarroako Mendialdeko enpresek elkarren berri izateko eta, aldi berean, ibarreko industria ehunaren aurkezpen txartela izan dadin sortu da Sakanako Enpresen Sarea. Sakanako Enpresarien Elkarteak (SEE) bere web orrian, [www.aesakana.com](http://www.aesakana.com), izanen da sarea. Elkartetik azaldu digutenez, "Sakanako Enpresen Sarea tresna berritzailea eta sortzailea da, enpresen lankidetzarako oinarri izanen dena".

SEEk Arbizuko Olatzea hotelen asteartean aurkeztu zuen tresna berria, hilaren akaberarako martxan izanen dena. Sakanako Enpresen Sarean haren aurkezpenaz aparte eskualdeko enpresen katalogoa dago. "Dagoeneko 60 enpresen berri ematen duen katalogoa osatu dugu baina, logikoki, sarrera berriekin egokitu egingen da". Enpresa bakoitzaren berri eman eta kontakturako bideekin batera, "enpresek dituzten beharraz azaltzeko formularioa osatzeko aukera izanen dute, beste enpre-

sa batzuek erantzuna eman diezaioketelako".

Sakanako Enpresen Sarearen beste atal bat «Enpresaren Defendatzailea» da. "Demagun enpresa bati argindarra hirutan joan zaio. Industrialde berean beste enpresa batek antzeko arazoaren berri ematen badu, elkarkea kexuak kudeatzeaz arduratuko da", azaldu digute elkartetik. Atal horretan enpresek proposamenak, galderak eta kontsultak egiteko aukera izanen dute.

### Aurreko lana

Asteartean aurkeztutakoa SEEren Zure enpresa modu arrakastatsuan kudeatzeko plana programa itxi du. Gure erakundeen lehiakortasunerako oinarriak: berrikuntza, sormena eta enpresa lankidetzaz pitulua du programak. Europako diruarekin hornituta dagoen 2007-2013 Nafarroako Tokiko Garapen Programarekin landu du bere plana SEEk, "enpresa kultura eta izpirituasustatu eta enpresa sareak eta lankidetzaz sortzeko ekimenen barruan".

SEEk 2013an jaso zuen dirulaguntzarekin Sakanako eta Leitza-raneko 31 enpresa aztertu zituen. "Laguntzak ez zuen gehiagorako



Sakanako Enpresarien Elkarteko Cristina, Jose Antonio, Virginia eta Veronica azalpenak ematen.

ematen". Enpresa bakoitzaren estrategia, komertzial, finantza eta giza baliabideen arloko diagnostia egin zen. "Berrikuntza eta sormen parametroak kontuan izanda enpresendako txostena egin zen", azaldu digute elkartetik.

Horren ondoren, enpresa entrenamenduaren txanda iritsi zen. Aipatutako lau arloetan adituak diren Enrique Larunbe (estrategia eta komertziala), Joan Josep Bosch (finantza) eta Marian Salaberriak (giza baliabideak)

gidatutako ezohiko prestakuntza saioak jaso zituzten: "enpresei tresnak eman zizkieten arlo bakoitzaren lan dezaten eta egunerokotasunak eraman ez ditzan; aldi berean, arloka lan egiteko lan moldea ezarri eta funtzionamendu egokirako baliabideak izateko".

Planaren hirugarren zatia tailer esperimentalak izan ziren. Haietan enpresa bakoitzaren lan moldearen berri ematen zuten eta sinergiak sortzeko bidea eman zuten. Esaterako, komertzial arlo-

an. Azken atala Sakanako eta Mendialdeko Enpresen Sarearen sorrera izan da eta tresna "garrantzitsua" dela nabarmendu du SEEk. Lan horri segida eman nahi dio elkarrekin eta 2014-2020 Nafarroako Tokiko Garapen Programako diru-laguntza deialdira aurkeztuz. "Mendialdeko eskualde gehiago hartu nahi ditugu, Leitza-ran, esaterako". Astearteko bileran, programa horretarako eta sarea bera hobetzeko ideiak jaso zituen elkarrekin.



## Bosgarren hilabetez langabeziak behera egin du

**Maiatza akaberan aurreko hilean baino 49 sakandar gutxiago zeuden Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda, 1.413 gutxira**

Joan den urteko maiatzarekin alderatuta 267 langabe gutxiago zeuden Sakanan aurtengo maiatzean. Eta urte hasieran baino 226 gutxiago. Nafarroako populazioaren %3,19 izanik langabeen %3,16 dira sakandarrak. Haien artean gehienak emakumezkoak dira, 810 (%57,32 eta aurreko hilean baino gutxiago). Gizonezko langabeak, berriz, 603 ziren (%42,68 eta 31

gutxiago). Duela urte bat bi generoen langabezia tasaren arteko aldea 9 puntukoa zen, aurtun 15koa da.

Adinari dagokionez, langabetu gehienak 45 urte edo gehiago dituzte: 664 (%46,99 eta 14 gutxiago). 25 eta 44 urte artekoen adin tarteko langabeak 596 ziren maiatza akaberan (%42,18 eta 48 gutxiago). 25 urte baino gutxiagoko artean langabeziak gora egin du, 153 dira (%10,83 eta 13 gutxiago).

### Sektoreka

Langabetu sakandar gehienak zerbitzuen sektorean lan egin nahiko luke: 861 (%60,93 eta 16 gutxiago). Industrian aritzeko eskaerak 328 ziren (%23,21 eta 22 gutxiago). Eraikuntzan lan egiteko prest zeudenak 89 ziren (%6,3 eta 9 gutxiago). Lehen sektorerako lan eskatzaileak 38 ziren (%2,69 eta 2 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez dutenen kopurua 97koa zen (%6,86, aurreko hileko kopuru bera).

+[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



| Langabezia herrika |              |            |
|--------------------|--------------|------------|
| Herria             | Langabetuak  | Aldea      |
| Arakil             | 35           | 4          |
| Irurtzun           | 165          | 1          |
| Irañeta            | 7            | 1          |
| Uhartea Arakil     | 54           | 7          |
| Arruazu            | 4            | 1          |
| Lakuntza           | 67           | 4          |
| Arbizu             | 63           | 6          |
| Ergoiena           | 8            | -4         |
| Etxarri Aranatz    | 134          | -7         |
| Bakaiku            | 15           | 1          |
| Iturmendi          | 20           | -3         |
| Urdiain            | 27           | -2         |
| Altsasu            | 689          | -34        |
| Olatzagutia        | 105          | -8         |
| Ziordia            | 20           | -4         |
| <b>Sakana</b>      | <b>1.413</b> | <b>-49</b> |

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETKEA

Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta

Asteleheneretik ostiralera  
**Eguneko menua**  
8,25€

Asteburuetan  
**Menu berezia** 25€

948 467 876 • Altsasu

*San Pedro egun ona pasa!*

**MAPFRE**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM  
jimazpr@mapfre.com  
948 563 354 • San Juan 48 behekoa • ALTSASU

Ogiaren artisauek

**PORTUKO**  
okindegia

Espelta ogia egiten dugu. Aurretik eskatu!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

## » Irurtzun

# Gazteendako Ur Festa Goxoa

**Heldu den ostegunean, 21:00etatik 23:30era, igerilekuan**

Ur Festa Goxora gonbidatuak daude Irurtzongo 12 urtetik gorako gazte guztiak. Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen bidez gauetzabalduko dira gazteendako igerilekuak. 21:00etan afaltzeko gazteek euren ogitartekoa eraman behar dute eta alkoholik gabeko edari bana jasoko dute hura bulkatzeko. 21:30etik 23:30era igerilekuan bainua hartu eta disko-festaz gozatzeko aukera izanen dute gazteek.

Ur Festa Goxoaren bidez gazteei une dibertigarria eskaini nahi

## Egutegia

**Garilak 2, osteguna, Irurtzun**  
**Garilak 9, osteguna, Etxarri Arantz**  
**Garilak 16, osteguna, Altsasu**  
**Garilak 23, osteguna, Lakuntza**  
**Garilak 30, osteguna, Uharte Arakil**



Gazteak Irurtzongo igerilekuan. ARTXIBOA

zaie. Sakanako herri gehiagotan errepikatuko den ekimena, Gozamenen programaren zati dira. Sakanako Gozamenen Koordinakundeak gazteei sexualitatearen

ikuspegi positiboa, errespetuzkoa, plurala eta aberasgarria eskaini nahidie. Gozamenen programak gazteen artean sexualitateari buruzko hausnarketa eta arlo

ezberdinen inguruko eztabaida sustatzea du helburu. Horregatik, publikoak eta ohikoak diren espazioetan sexualitatearen presentzia azaldu nahi du.

## » SAKANA

# Sakandarrak erabakitzearen alde

Gure Esku Dagok igandean Euskal Herriko hiriburuetan deituko erabakitzearen aldeko ekitaldi masiboek sakandarren erantzun zabala izan zuten. Izan ere, sakandar askok eta askok egin zuten bat ekimenekin, bereziki Iruñean deitutaekin. Eguerdian sakandarrok Santa Ana plazan genuen hitzordua, aurretik herrizherri erabakitzearen aldeko mezu ezberdinekin landu eta jositako oihalekin oihal katea egiteko, eta



Gure Esku Dagoren ekitaldian izan zirenak zezen plazako itzala eskertu zuten.

arratsaldean Zezen plazako ekitaldian parte hartu zuten. "Erabakia-

ren aroa hasi da" adierazi zuten antolatzaileek.

## »

## Mahai jolasak elkartuta



Altsasuko jubilatuen eta pentsiodunen elkartearen egoitzak Nafarroa ipar mendebaldeko elkarten mahai jokoen txapelketen finalak hartu zituen hilaren 12an. Bederatzi elkarreetako 90 pertsonen parte hartu zuten mus, briska, tute eta partxis lehiaketetan. Muslari onenak Jaime Agirre eta Francisco Lopez urdiaindarrak izan ziren finalean Antonio Flores eta Jose Luis Flores irabazita. Tutean abilenak Jose Martin eta Ignazio bakaikuarrak izan ziren, finalean Francisco Sanchez eta Teo Perez altsasuarrei irabazita. Isadora Garziak eta Maria Cuevas irurtzundarrak briskako lehensaria eskuratu zuten Marce Reguero eta Pakita Palacios altsasuarrei irabazita. Partxisko txapelkunak irurtzundarren artean erabaki zen: Ines Labarik eta Ramona Francok Tere Carmona eta Rosa Mestreri irabazi zieten.

## » Irañeta

## Ur araztegiak eraikitzailea du

Nilsa enpresa publikoak Irañetako ur beltzen araztegi egiteko lanak Construcciones Mariaezkurrena SL enpresari eman dio 210.770,95 euroren truke (BEZ kanpo). Akordioak sinatu ondoren sei hileko epea izanen du enpresak lanak egiteko. Gaur egun Irañetako ur beltzak jasotzeko erabiltzen den hobi septikoaren 20 metrora egingen da araztegi, altuago dagoen lur sail batean. Horregatik, hobi septikotik hara ur beltzak eramateko punpa ere jarri behar dute.

Araztegi egitearekin, ur beltzak garbitu eta ibai uraren kalitatea hobetzeaz aparte, uholdeak gertatzen direnean izaten den arazoa desagertuko da. Hobi septikoa ibai bazterrean dago eta ubeldeak gainzka egiten duenean urez betetzen da bere zeregina eragotziz.

## » Olatzagutia



Teilatua txikituta gelditu zen.

## Hondakin bilketako larrialdi gunea erreta

Erburuak kiroldegiaren ondoan dagoen hondakin bilketarako larrialdi gunean sutea izan zen hilaren 15eko goizaldean. Olatzagutiko 839 etxebizitzetara zerbitzua ematen zien larrialdi guneko kalteak 5.000 euro ingurukoak izanen direla azaldu dute Mank-etik; baita lehenbailehen konpontzen saiatuko direla. Foruzingoan salaketa jarri du ibarreko erakundeak. Aurretik, Uharte Arakilen, Etxarri Arantzaren eta Olatzagutian auzo-konpostagailu bana erre izan dira.

## » Arruazu

# Bazkari internazionalista bihar

Askapenak antolatuta, erakundeen kontrako kideen epaiketa salatu eta internazionalismoa delitua ez dela salatuko dute biharko herri bazkariarekin. 14:30ean jarriko dira mahaira. Erakunde internazionalistak bazkariarekin batera, bideo emanaldia, bertsolariak, musika eta zozketak izanen direla iragarri du.

Espainiako Auzitegi Naziona-



Aritz Ganboa arbazuarra. ARTXIBOA

lean aurki hasi daiteke Askapenaren kontrako epaiketa. Fiskaltzak sei urteko espetxe zigorra eskatu du Askapenaren kontrako sarekadan atxilotutako bost pertsonendako. Haien artean Aritz Ganboa De Migel arbazuarra dago. Pablo Ruz epaileak duela hiru urte emandako autoan Askapenak ET Arendako "kanpo babesak" lortzea zela idatzi zuen.

## » Altsasu

# Diru-laguntza Sunsundeguiaren I+G proiektuetarako

Sunsundegui jakinarazi duenez, enpresaren bi proiektu Nafarroako Gobernuaren Ikerketa eta Garapen teknologikoaren diru-laguntzak jaso dute. Europako Feder 2014-2020 programaren bidez erdibana finantzatutako diru-laguntza da Altsasuko enpresak jaso duena. Nazioarteko merkatuetarako hiri autobus modelo berriak eta Autobusendako karrozatu garapena dira lagundutako proiektuak.

Bestalde, Sunsundegui buru Jose Ignacio Murillok aurreratu du aurten ekoizpena %30 haztea



Jose Ignacio Murillo ekoiztutako autobus baten aurrean. WWW.SUNSUNDEGUI.COM

espero dutela. SC5 eta SB3 autobus modelo berriek harrera ona izan dute merkatuan eta, horre-

gatik, ekoizpen planak aurreratu dituzte. SC5 autobusa Espainiara, Israelera eta Erresuma Batura

saltzen ari dira. Murillok aurreratu duenez, urteko lehen sei hilekoan 150 autobus ekoiztuko dituzte eta urte akaberarako 290 unitatera iristea espero dute. "Halako hazkunde azkarrak zailtasunak dakartza, baina ongi etorriak".

Bestalde, Erresuma Baturako SB3 autobusaren eskola garraiorako bertsioa urteko azken hiruhilerako prest izan nahi du Murillok. Bitartean, joan den urtean aurkeztutako bi autobus modeloen luzera guztietako eta sarrera errazeko bertsioak egin dituzte Sunsundegui.

## » Etxarri Arantz

## Udalak Aldapasoroko lanak emateko deialdia egin du

Aldapasoro auzoko sareak eta zorua berritzeko lanen deialdia egin berri du Etxarri Arantzako Udalak. 2009-2012 Tokiko Inbertsio Planean jasotako lana da eta 647.386,01 euroko aurrekontua du (BEZ kanpo). Interes duten enpresek euren eskaintzak garilarren 6ra arte aurkeztu ditzakete Etxarri Arantzako udaletxean. Lanak behin emanda haiek egiteko urtebete izanen du enpresak.

## SAKANA

# Udalek euren energia diagnosis eskutan dute

Sakanako Plangintza Energetikoa helburua dela, ibarreko 15 udalen eraikin eta azpiegitura publikoen kontsumo elektriko eta termikoen azterketa egin da

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) kudeatuta Acimuth enpresak azterketa egin du. Eta horren berri aurkeztu ziren herenegun udal arduradunei. SGako Aintzane Iriberrri Berrostegetak azaldu digunez, "diagnosiaren bidez udal bakoitzak zenbat energia kontsumitzen duen eta horrek duen kostua azaltzen da. Kontsumo puntuen lehenetsunak ezartzen ditu eta energia auditoretza sakonagoak egiteko bide ematen du". Iriberrri gaineratu duenez, "helburua Sakanako Plangintza Energetikoa da, Sakana 2020 Plan Estrategikoa jasoa dagoena". Europako Toki Garapenerako Programako dirulaguntza baliatuz egin du SGak energia diagnosis.

Diagnosian zenbat kontsumitzen den aztertu da, ez nola kontsumitzen den. Hurrengo pausua energia auditoritza zehatzagoak egitea izanen litzateke. Diagnosiak emandako lehenetsun puntutan hasiko dira auditoritza horiek egiten. Izan ere, gaur egun udal bakoitzak energia planak dituzte, batzuk besteak baino garatuago-



Sakanako Garapen Agentziako kideek udal ordezkarietara herenegun eman zieten diagnosien berri.

| Udalen energia kontsumoa |                          |                  |                    |
|--------------------------|--------------------------|------------------|--------------------|
| Udala                    | Elektrizitate kWh/urteko | Gas kWh/urteko   | Gasolio kWh/urteko |
| Altsasu                  | 1.683.328                | 2.113.651        | 43.147             |
| Etxarri Aranatz          | 656.368                  | 415.336          | 0                  |
| Olatzagutia              | 435.849                  | 370.799          | 102.850            |
| Arbizu                   | 511.878                  | 116.468          | 453.884            |
| Irurtzun                 | 442.783                  | 344.468          | 89.819             |
| Uharte Arakil            | 260.243                  | 136.091          | 0                  |
| Lakuntza                 | 312.497                  | 145.036          | 0                  |
| Urdiain                  | 159.691                  | 0                | 74.397             |
| Bakaiku                  | 114.452                  | 13.116           | 0                  |
| Iturmendi                | 100.861                  | 0                | 53.702             |
| Irañeta                  | 67.089                   | 0                | 0                  |
| Lizarraga*               | 46.727                   | 0                | 0                  |
| Dorreo*                  | 29.784                   | 0                | 0                  |
| Mank-en egoitza          | 20.494                   | 30.449           | 0                  |
| Unanu*                   | 37.844                   | 0                | 0                  |
| Arruazu                  | 20.052                   | 0                | 0                  |
| Arakil                   | 84.606                   | 0                | 0                  |
| Ergoiena                 | 1.919                    | 0                | 9.151              |
| <b>Guztira:</b>          | <b>4.986.466</b>         | <b>3.685.444</b> | <b>826.949</b>     |

\*Kontzejak

**1.126.752 euro urteko**

Hori da Sakanaren energiaren faktura publikoaren kostua (9.498.860 kWh urteko). 54,95 euro sakandarreko.

ak, baina energia plangintza orokorrik ez dago. Udal guztiek energia arloan jarraituko luketen estrategia bat sortu nahi da, "herri bakoitzaren berezitasunak mantenduz" zehaztu du Iriberrri.

## Ondorioak

SGAko kideak esan digunez, egin-

dako energia diagnosiaren epe motzeko ondorioa izanen da energia gastuaren murrizketa, "dela kontratatutako potentzia doitu (20.000 euroko murrizketa) edo komertzializatzailea aldatuz (43.000 eurokoa)". Epe luzeko ondorioa da Sakanako Energia Plangintzaren oinarria izanen dela. Hainbat jardura aurreikus daitezkeela esan digu Iriberrri: "energia auditoretzen beharra neurtu, energia arloan, udal langileei prestakuntza eskaini, bateratutako energia erosketa proiektuak sustatzea, energia berriztagarrietako proiektuen bideragarritasuna aztertzea, sentsibilizazio kanpainak egitea eta abar".

Diagnosiak erakutsi duenez, orokorrean udalek kontratatua duten potentzia behar baino handiagoa da. "Doikuntza eginda aurrezpen handiak lortu daitezke. Esaterako, kontratu batean 8.000 euroko aurrezpena egiteko aukera. Diru asko da hori udal baten dako". Udalek kontratatutako prezioetan, azpiegiturretan... ezberdintasunak agerian utzi ditu energia diagnosiak eta orain, udal bakoitzari bere txostena emanda, SGako kideak haiekin lanean ariko dira. Sakanako Energia Plangintza zehazteko bidea emanen dute harreman horiek. Etorbizunean energia eraginkortasuna hobetzeko proiektuak landuko lituzke agentziak udalekin.

+www.guaixe.eus

## Etxeen isolamendu termikorako diru-laguntza handiak

**Orain arte ez bezala, Nafarroako Gobernuaren eta Idaeren bidez banatzen diren diru-laguntzak bateragarriak dira**

Sakanako Mankomunitateko Zaharberritze Zerbitzuko Joakin Ansok jakinarazi digunez, Europako legediak 2020rako ongi isolatuta dauden etxebizitzak nahi ditu, zero kontsumoa dutenak. Egiteko horretan estatua oso atzeratuta dago eta Europatik isunak ere jaso ditu. Diru-laguntzak bateragarri eginez

etxeen isolamendu termikoaren hobekuntzari bultzada eman nahi diote.

### Idea Pareer Crece

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak 200 milioi euroko poltsa du etxeetako inguratze termikoa hobetzeko. Hobekuntza lanen aurrekontuaren %30 estaliko du diru-laguntzak. Horri %5 gehiago gehitu dakioke eraikinen energia eraginkortasunak

letra bat gora egiten badu. Eta babestutako etxebizitza komunitatea bada %15eko laguntza gehiago. Guztiak batuta, beraz, kasu batzutan lanen erdia ordaindu luke komunitateak.

Idaek lanak egin ahal izateko maileguak ematen ditu. Etxebizitzaren araberrako formula bat erabiltzen da horretarako, baina lanen %60 estaltzeko mailegua da, 12 urterako eta euriborra gehi 0 interesekin.

### Nafarroako Gobernuarena

1980ko ilbeltzaren 22aren aurretik eraikitako etxeek jaso dezaketeko administrazioaren diru-laguntza. Bestalde, gutxieneko bat isolatu behar dira eraikinetan eta horren araberrako diru-laguntza ematen du. Taula zehaztua du gobernuak. Aurrekontuaren %40 estaltzeko laguntza da Nafarroakoa.

Beraz, bakarren batzuek lana estaltzeko %90 jasoko lukete. Bai-

na diru-laguntzak diru-sarrera estra gisa hartuak daudenez, errentaren araberr zerga ordaindu beharko luke etxejabeak edo ez. Ansok azaldukoaren araberr inbertsioa bospasei urtetan amortizatuta dago eta 25-30 urterako balio duen zaharberritzea egin zaio etxebizitzari. Etxebakarrak 30.000 euroko lanak egin beharko dituzte diru-laguntza eskatu ahal izateko.

+www.guaixe.eus

**TxikiTxo**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 · ALTSASU

Ondo pasa udako festetan!

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA

Egizu topa!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu  
948 467 317 · 696 979 279  
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

100 urte Sakanan

**KIRRU** HARATEGIA

Sebastian  
TXISTOREA  
MORCILLA

948 467 084  
618 610 375  
Otadia plaza, 6  
Altsasu

San Pedroko enkarguekin POSTREA DOAN

## &gt;&gt; Altsasu

# Martinez ostegunean epaituko dute



Sanpedrotan elkartasun brotxeak salduko ditu dinamikak. ARTXIBOA

**Donostiako herri harresian parte hartzeagatik 15 hilabeteko espetxe zigor eskaera eta isuna eskatzen dute harendako**

Defentsaren lekukoetako batek joan ezin zuelako otsailaren 25erako iragarria zegoen epaiketa heldu den ostegunean egingen da. Epaitua Edurne Martinez izanen

da. Duela bi urteko Donostiako aske gunean atxilotzeko agindua zuten sei gazte babesteko herri harresia osatu zuten ehunka gazte. Altsasuarrak harresi hartan parte hartu zuten. Ertzaintzak atxilotu eta agintearen kontrako atentatua leporatu zion. 15 hilabeteko

espetxe zigor eskaera eta isuna eskaerari aurre egin beharko dio.

Epaiaketa salatzeko makina bat ekimen egin ditu Edurnerekin bat dinamikak. Ostegunerako ere prest ditu. Dinamikatik Donostiako auzitegira joateko autobusa antolatu da eta ohiko tokietan dago izena emateko aukera. 8:00etan abiatuko da Altsasutik. 10:20an dago iragarria epaiketa eta hura bukatuta, eguerdian, Altsasurako bidea egingen dute. Epaiaketa salatzeko *Elkartasuna ez da delitua! Herria zurekin!* lelopean kontzentrazioa egingen da udaletxe parean, ostegunean, 19:00etan.

Edurnerekin bat dinamikatik beti salatu dute Donostiako herri harresian atxilotu zituzten bi gazteak "muntai polizial eta mendeku politikaren ondorio garbia" direla. "Edozein izan zitekeen atxilotua. Eta ondorengo herri harresietan ere akusazio berarekin beste hainbat atxilotu egon dira". Dinamikak euskal gazteriararen "kriminalizazio" saioak salatu ditu.

## SAKANA

# Gorenak 35/02 auziko epaia berretsi du

**Zortzi auzipeturi, Aldasoro tartean, zigorrak murriztu dizkie eta herriko tabernak konfiskatzeko agindua berretsi du**

Espainiako Auzitegi Nazionalak joan den urtean emandako epaiaren ildo berekoa izan da Gorenak aurreko ostegunean eman zuena. Egindako aldaketa bakarretakoa auzipetu batzuen helegitea partzialki onartzea izan da, auzi-bidearen "luzamendu bidegabea oso larria" izan baita.

Hala, "ETAren fronte instituzionala" osatzea eta "erakunde terroristako" kide izateagatik auzipetutako zortziri zigorrak murriztu dizkie. Horien artean dago Juan Kruz Aldasoro. Urtebete eta 10 hilabeteko zigor berria ezarri dio

Gorenak. Auzitegi Nazionalak aurretik 3 urtekoa ezarria zion. Behin behineko espetxealdian 2 urte eta 5 hilabete eginak ditu etxarriarrak. Bestalde, 6 urterako zuzen inhabilitazioa urtebete eta 10 hilabetekoa izatera pasa da.

Auzi berean berretsitako zigorraren artean Jaione Intxaurrenaren dago. Urdiaindarrari eta beste 11 euskal herritarri "ETAren egitura" finantzatzegatik Espainiako Auzitegi Nazionalak urtebete eta hiru hilabeteko espetxe zigorra eta 4 urteko inhabilitazioa ezarri zion. Intxaurrenaren bi urte eman zituen behin behineko espetxealdian.

Bestalde, Gorenak 101 herriko

taberna bahitzeko agindua eman du ere. Horien artean dago Altsasuko Herria Eginez elkarte. Larunbatean Zarautzen egindako agerraldian auzitegiak "1936an faxistek eginiko lokal eta hondasun lapurreta erreproduzitu" duela eta "herrikoen lapurreta" salatu zuten. Aldi berean, "herriko tabernen defentsa egingen dugu eta haiek defendatzera" deitu zuten, asteburu honetarako mobilizazioak iragarri. Erredakzioa ixterakoan Altsasun mobilizatorik izanen zen ez genekien.

Defentsako abokatuek Espainiako Auzitegi Konstituzionalean helegitea jarriko dutela iragarri dute.

## &gt;&gt; Olatzagutia

# Porlandegian hondakinak erretzeko baimenaren baliogabetzea eskatu dute

**Sustrai Erakuntza fundazioak Nafarroako Gobernuari egin dio eskaera, baimena eman zenetik gauzatu ez delako**

Cementos Portland Valderrivasek Olatzagutiko porlandegian hondakinak erretzeko Ingurumen Baimen Bateratua 2013ko ilbeltzaren 16tik du. Enpresak bi urteotan proiektua martxan jartzeko inolako jarduerarik egin ez duenez, Sustrai Erakuntza fundazioak Nafarroako Gobernuari porlandegiaren hondakinak erretzeko baimena irautzea, baliorik gabe dagoela izendatzea eskatu dio. Fundazioko kideen iritziz legea eskutan Nafarroako Gobernuak baimena indarririk gabe utzi behar du.

Aldi berean, jakinarazi dute porlandegian hondakinak erretzeko Udalez Gaiendiko Proiektu Sektorialaren kontra fundazioak eta Sakanako Mankomunitateak zabalduz auzian baimen horren baliogabetze eskaera gaineratuko dutela.

## Bilera

Mank-en eta fundazioaren ekimenez epaitegiek Nafarroako Hondakin Kudeaketarako Plan Integrala baliorik gabe utzi ondoren, Nafarroako Gobernuak berri bat egiteko prozedura martxan jarri du. Atzo planeko parte hartze lantaldea elkartu zen errefusa diren hondakinak nola kudeatu behar diren eztabaidatzeko. Sustrai Erakuntza eta beste eragile batzuk errausketa mota guztien kontrako jarrera azaldu zuten eta planak

birziklatze helburu ahalik eta altuenak jaso ditzan ahaleginduko dira.

Sustrai Erakuntzatik azaldu dutenez, plan berrian errauskailua eta errausketa baztertu egin dira. "Baina hiri hondakin solidoak Olatzagutiko porlandegian errausketei aukera mantentzen dela ikusten dugu". Bestalde, jakinarazi dute atzoko bilerarako txostenean Nafarroako Gobernuak hiri hondakin solidoen errefusarekin Hondakinetatik Eratorritako Erregaiak egiteari lehentasuna ematen diola. "Hondakinak erregai gisa mozorrotzen dituzte eta horrek errausketarako atzeko atea zabaltzen du. Hitzak aldatuta ere, dena gauza bera da, ingurumenaren eta osasunaren kaltean hondakinak erretzea", salatu du fundazioak, Greenpeacekin bat eginez.

Fundaziotik Olatzagutian erreko diren hondakinez osatutako prestakinetatik egitearen kontra azaldu dira. Gogorarazi dute Hondakinetatik Eratorritako Erregaiak Europako hainbat herrialdeetatik Mallorcako errausketeira eramaten direla. Eta gaztigatu dute Arabako Jundizen egiten diren moduan hondakinen kudeaketarako edozein enpresak ekoizte ahalik dituela edonon gero gurea erretzera ekartzeko. Sustrai Erakuntzak errausketa baztertzeko eta hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklatze politiken alde agertu da.



Porlandegia Olatzagutiko dermiotik.

## &gt;&gt; Etxeberri

# Lacturalek Osasunaren administrazio salbaziorako mailegua eman zuen

**Iruñeko auzitegian Osasunak mailari eusteko partidak erosi dituen ikertzen ari dira eta Etxeberriko enpresaren mailegua horretara bideratu zen ikertzen ari da epailea**

Aurreko ostiralean Lacturaleko buru Juanma Garrok onartu zuen Osasuna futbol taldeari 220.000 euroko mailegua egin zio-

la klubaren salbazio administratiborako. Antza, klubeko kideek dirua partidak erostera bideratu zuten gero. Garrok azaldu zuenez, "orain arte egin dugun bakarra Osasuna babestea izan da eta horretan segituko dugu". Lacturalekoak argitu zuenez, "premiazko ordainketak egiteko

dirua eskatu ziguten, bestela administrazio erabakiagatik mailaz jaitsi zitekeelako eta kirol arloan mailari eusteko aukera zegoelako". Abeltzainei nominak ordaintzeko zuten dirua baliatu zuen Lacturalek horretarako eta hilabeteren bueltan itzuli zion klubak.



» Etxarri Aranatz / Bakaiku / Iturmendi / Urdiain

# Nazioarteko taldea Bernoako galtzada berreskuratzen

**15 gaztek hamabostaldia eginen dute garai bateko galtzada berreskuratzeko lanean**

Garilaren lehen hamabostaldian Frantzia, Errusia, Korea, Espainia eta Mexikoko 18 eta 23 urte arteko 15 bat gazte unibertsitari Sakanan izanen ditugu. Bernoako galtzada berreskuratzeko lanean etorriko dira. Sakanako Garapen Agentziarekin elkarlanean, De Amicita GKEk ekarritako boluntario taldea izanen da Bernoako galtzada berreskuratzeko, azalatzeko, eta estalitako zatiak opatzeko lanean ariko direnak. Etxarri, Bakaiku, Iturmendi eta Urdiainen ariko dira gazte boluntarioak lanean, herri bakoitzean bi egun eta erdi emanez.

## Galtzada

Berno edo Berrenoako galtzadak Lizarralde eta kostaldea (Donostia eta Pasaia) lotzen zituen. Bakedanotik Santa Marinar barna Iturmendira doa (14 km) eta Arizaga ermita atzean utzita, mendia gaintuz, Sakana Ataunekin lotuz (12 km). Bidean gardien txabolaren aztarnak ikusi daitezke. Kontrabandoaren kontra jarduten ziren haiek. Aduana ere bazegoen.

Etxarri eta Bakaikuko beheko basotik doan adarrak Bernoako galtzadarekin Iturmendiko Aizkibel-Mandabita dermionan bat egiten du. Bakaikuko beheko basoan galtzada zati batzuk ikusi egiten dira, baina traktoreek hondatu dituzte. XIX. mendean Lizarrustiko errepidea egitearekin galtzadak garrantzia galdu zuen.

Bernoako galtzadaren moduetan, ordea, mandazainak ibiltzen ziren aurrea atzera. Berno moduko galtzaden jatorriari buruzko hipotesi ugari daude. Batek dio aurre-historiakoak izan daitezkeela, haien aldamenean trikuharrak eta bestelako monumentuak eraiki zirelako. Besteak erromatar bide nagusiaren adarrak izan daitezkeela dio. Bordele eta Astorga arteko erromatar galtzadak zeharkatzen zuen Sakana. Bide



**Zaharberritzeak.** Ipar-hegoa tratatua duten galtzada horiek zaharberritu eta zabaldu egin zituzten Burundako eta Etxarri Aranazko mandazainek XVIII. mendean. **Urdiaingo** almintek joan den urtean agerian utzi zuen herria eta Ataun lotzen dituen galtzada. Urriztikiko auztetxetik abiatuta ibilbidea prest dago. **Iturmendik** 90eko hamarkadaren bigarren zatian garbitu eta seinaleztatuta zuen galtzada.



## Berrenoako galtzadara toponimia ibilaldia

Laugarren toponimia ibilbidea gidatuko du bihar Jose Luis Erdozia adituak. Etxarri Aranazko Toponimia Batzordeak antolatutako ibilaldien bidez toki izenen ondarea gorde egin nahi da, ohitura eta gertakari historikoen adierazgarri bizia baitira. Oraingo honetan Berrenoako galtzadaren inguruak ezagutzeko aukera izanenda hiruzpau orduko ibilaldian. Aipatu galtzada berreskuratzeko lanetara etorriko da heldu den astean nazioarteko gazte talde bat. Hori dela eta, lan horiei bultzada eta indar

handiagoa emateko Etxarri Aranazko Udalak garilaren 4rako, larunbaterako, auzolandealdi irekia egin du. 9:00etatik 14:00etara izanenda, baina hitzordua 8:30ean jarri da Urbi-jotzendeneko zubian. Udaletik auzolanera aitzurra eta pala eramateko gaztigatu dute.

Bai toponimia ibilbiderako bai auzolanerako alde aurretik izena eman behar da 948 460 930 edo 6060 239 008 telefono zenbakietara hots eginez edo kultura@etxarriaranatz.com helbidera idatziz.



## SAKANA

### 66.796 euro baso lanetarako

Sakanbako sei toki erakunde 66.796 euro jasoko dituzte aurtan Nafarroako Gobernutik, natur ingurunea eta basoen baldintza ekologikoak kontserbatu eta hobetzeko.

| Baso lanetarako laguntzak      |               |
|--------------------------------|---------------|
| Irurtzun-Etxeberri partzuergoa | 6.485         |
| Uharteko Arakilgo Udalak       | 5.606         |
| Arbizuko Udalak                | 6.711         |
| Urdiaingo Udalak               | 18.377        |
| Olatzagutiko Udalak            | 26.116        |
| Aralarko Batasuna              | 3.501         |
| <b>Guztira</b>                 | <b>66.796</b> |

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**

**Berria erosi taldea**

**LARRAZA**  
**ARDOAK**  
Tel.: 948 460 014



Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz

**JAVIER ZELAIA**

**Pintura eta igeltsua**  
**Zaharberritzeak eta obra berria**  
**Barneko dekorazioa**  
**Aurrekontua eskatu**  
**konpromezurik gabe**

648 143 615 · Altsasu

**Ana Santano**

**Bularra ez da soilik eilikadura**  
**Edoskitzerako**  
**amendako**  
**laguntza**

Uztailaren 9tik 26ra **OPORRAK**  
Edozein zalanztarako,  
**HOTS EGIN**

635 811 106  
Gartzia Ximenez 16 · Altsasu



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

948 197 070


Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Iker Borrega Arnedo

Gure bidea erraza ez bada ere, egon lasai, elkarrekin jarraituko dugu.

(J.A.)






Mari Karmen Goñi Insausti

I. urteurrena

Bihotz beroa, atsegina, su eder bat bezalakoa neguko gau hotzean.

Etxarri Aranatz, ekainaren 17an.



Oroigarriak



Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275



GRUPO  
**Funeraria VASCONGADA**  
Ehorzketak  
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**

www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

[guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)

|                  |               |                 |
|------------------|---------------|-----------------|
| 1 HIGIEZINAK     | 4 DENETARIK   | 7 AISIA/KIROLA  |
| 2 TEKNOLOGIA     | 5 IBILGAILUAK | 8 FAMILIA/ETXEA |
| 3 LANA/NEGOZIOAK | 6 HARREMANAK  |                 |

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.

Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [zorian@guaixe.eus](mailto:zorian@guaixe.eus)

**Higiezinak**  
**ETXEBIZITZAK**

SALGAI

**Txantrean pisua salgai.** Ezkaba plazan, 3 logela, berritua, igogailua, balkoi itxia, etab. Oso inguru atsegina eta bisita ederrak, 120.000 €. Tef 625 05 90 89.

**LOKALAK**  
**ERRENTAN EMAN**

**Bakarreoetxea elkarteko tabernak** alokatzen dira Bakaikuko festetarako. Irteera prezioak: taberna handiarentzako 2.000 € eta txikiarentzako 1.000 €. Interesatuek Bakaikuko Elkartean aurkeztuko dute euren eskaintza ekonomikoa uztailaren 3an, gaueko 22:00etan, sobre itxi batean sartuta.

**Opatutakoak / Galdutakoak**  
**OPATUTAKOAK**

**Bizikleta bat.** Altsasuko Aralarko Mikel Donea Institutuan, bizikleta utzi, ahaztu edo galdu duenak, mesedez, hots egin dezala 948 56 48 35 telefonora.

**GALDUTAKOAK**

**Graduatutako betaurrekoak galdu nituen** Altsasun ekainaren 22an. Opatu dituenak, mesedez, hots egin dezala 686 07 10 14 edo 948 56 25 15 telefonoetara. Maite.

**Lehiaketa**

**Argazki lehiaketa.** Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa antolatzen du Nafarroa bisitatzen dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke [info@turismoruralnavarra.com](mailto:info@turismoruralnavarra.com) helbidera edo zuzenean [www.turismoruralnavarra.com](http://www.turismoruralnavarra.com) web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

**Oharra**  
**Odol-emaileak.** Garilaren 14an, 15ean eta 16an, arratsaldez Altsasun; eta 17an goizez Altsasun.

**Altsasuko Kirol Elkartean Ez Ohiko Batzar Orokorra.** Ekainaren 26an izango da lortziako areto txikian, 18:30ean, ondoko gai ordenarekin: kontuen irakurketa eta onarpena; bazkideen kuota eta aurrekontuen onarpena; eta, besteak beste, hautagaien aurkezpene eta Talde Ergailearen hautaketa.

**Bertso udalekuak.** Euskal Herriko osoko haur eta gazteek parte har dezakete bertso-udalekuekin. Euskal Herriko Bertsolari Elkartek antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsoszale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

**Mintzakide proiektua.** Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

**Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.** Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

**Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.**

Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza) euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural Kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

**Auzolana Josefina Arregui klinikan.** Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

**Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.** Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com) edo [amigososefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigososefinaarreguilagunak@gmail.com)

**Eskuratu zure beleixeguaix txartela.** 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

**Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

**Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda.** Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroz, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, gara-

gardo, lekaleak, ozpina... Informazioarako: 656 711 130 (Gorka).

**Herialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irrantza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatz, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigratzioa@sakanamank.com](mailto:immigratzioa@sakanamank.com) posta elektronikoz.

**Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatz, asteartean Irurtzun eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigratzioa@sakanamank.com](mailto:immigratzioa@sakanamank.com) posta elektronikoz.

**Gazteendako sexualitate aholkularitza.** Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaituz Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informazioarako: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo

**JAIOTZAK**

- Enara Flores San Migel, garagarriaren 14an Lakuntzan.
- Raquel Dos Anjos Correia, garagarriaren 15ean Altsasun.

**EZKONTZAK**

- Alvaro Olano Razkin eta Arantza Gorriti Razkin, garagarriaren 20an Arbizun.

**HERIOTZAK**

- Paulina Lopez de Zubiria Lizarraga, garagarriaren 16an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

[sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.

**Iparaldeko Ikastolak laguntzeko.** Bi kontu zerbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

**Garraio laguntzarako diru bilketa.** Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zerbaki zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

**RAZKIN EGUESIBARKO TRIATLOIKO TXA-PELDUNA:** Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria den 16. Eguesibarreko Triatloian aurrebenjamin mailako proba Alain Razki-

nek irabazi zuen; Ekain Imaz 10.a izan zen. Benjaminetan Egoi Lakuntza hirugarrena sailkatu zen eta kimuetan Nahia Imaz hamabosgarrena.

## Pilota



## Ezkurdia San Ferminetako lau t'erdiko finalerdietara

**Arbizuarrak 9 tantotan utzi zuen Retegi Bi final laurdenetan**

San Juan egunean Eibarko Asteleñan jokatu zen Sanferminetako lau t'erdiko Aspekoadarreko final laurdena. Joseba Ezkurdiak Julen Retegei izan zuen aurrez aurre. Badirudi arbizuarrak parranda gutxi egin zuela San Juan bezperan, ordu erdi eskasean Retegi Bi 9 tantotan utzi baitzuen. Ezker eskuko hatza hautsi ondoren lehen partida zuen Retegei Bik, eta nabaritu egin zuen. 6 eta 9ra arte, arbizuarraren erasoari eutsi zion, baina Ezkurdiak zazpitan to sartu zituen segidan, partida erabakita utzita. Boleaz indartsuarekin lortutako azken tantoarekin 22-9 gailendu da Ezkurdia. Finalerdietan arbizuarrak Juan Martinez de Irujo du zain. Gaur entseatzeko aukera dute biek, Urrestillan elkarren kontra ariko baitira, Ezkurdiak Albisu bikote duela eta Irujok Zubieta.

## Goizuetak Arbizu menpean hartu zuen

Asteburuan Nafarroako Herrien Arteko Pilota Txapelketako 7. jardunaldia jokatu zen. Bigarren mailan Goizuetaren kontra jokatu zuen Arbizuko Aldabidek. Lau partidatan gailendu ziren goizuetarrak.

## Emaizak:

Goizuetak 4 / Aldabide 0  
**Kimuak:** Apezetxea-Apezetxea (Goizuetak) 18 / Gorrotxategi-Baztarrika (Arbizu) 9  
**Haurrak:** Aizkorbe-Apezetxea (Goizuetak) 18 / Olaetxea-Petriati (Arbizu) 7  
**Jubenilak:** Salaberria-Salaberria (Goizuetak) 22 / Nazabal-Flores (Arbizu) 4  
**Seniorrak:** Apezetxea-Narbarre (Goizuetak) 22 / Agirre-Arruti (Arbizu) 9

## Frontenisa

## Emakumeen VIII. Frontenis txapelketan baditugu finalistak

Sei bikotek hartu dute parte Sakanako Mankomunitateak antolatutako VIII. Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketan. Bost jardunaldi jokatu ondoren, onenak sailkatu dira finalerako.

Finala gaur jokatuko da, ostiralean, 20:00etan Etxarri Aranazko Euskalerreri pilotalekuan. Andrea Izarrek eta Ane-Uxuek dute txapela jokoan.

## Txirrindularitza

# V. Sakana Burunda bihar

**Bihar, larunbatean abiatuko da, 8:30ean, Altsasutik. Bi aukera izango dira: ibilbide osoa, Aralarreko San Migelera itzoko dena (124 km) eta Aralarreko itzoko ez dena (100km)**

Burunda Txirrindularitza Klubak V. Sakana Burunda txirrindularitza martxa prestatu du bihar. Aurreko urtean agorrilaren 23an antolatuta zuten txirrindularitza martxa, Vuelta Sakanatik pasa baino aste pare bat lehenago, baina aurten martxa aurreratzeko erabaki dute, egutegian toki finkoagoa egiteko asmoz. Helburua, orain arte bezala, Sakana ezagutaraztea eta bizikletarekin egun ederra pasatzea da. Proba antolatzen Rural Kutxa, Lacunza Color Group, Altsasuko Udala eta hainbat komertzio eta erakunderen babesa jaso du Burunda klubeko berregituraketatik sortu den Barranka Txirrindulari Taldeak.

**Bi ibilbide: 124 km edo 100 km**  
 Aurten ere bi ibilbide izanen dira. Txirrindulari guztiak bihar goizeko 8:30ean aterako dira Altsasuko Foru Plazatik, Ziordirantz. Han buelta hartuta Urbasako Altamira portua igoko dute, Etxarriraino joateko. Lizarragako Katea igo, Arbizutik jaitsi, eta aurrera egingo dute, Uharte Arakilera. Ibilbide luzea hautatu dutenek San Migelego portua igoko dute, Barribartik Oderitzera jo eta Madotzeko portua jaitziz, buelta hartu eta Altsasuraino jotzeko (124 km, 2.011 metroko desnibel positiboa). Ibilbide laburra hautatzen dutenek, aldiz, Uharte Arakilera helduta Aralarreko joko beharrean aurrera egingen dute, Zuhaturaino. Han buelta hartu eta Altsasuko helmugarantz joko dute (100 km, 1.050 m desnibel positiboa).

## San Migelgo igoera, kronometratuta

V. Sakana Burunda proba ez lehia-



2014an Migel indurainek eta Jorge Azanzak eman zioten hasiera probari.

korra da, baina Uharte Arakildik (456,30 m) San Migelera (1216 m) bitarteko 9,4 km-ko igoera kronometratua izango da, proba ez lehia-korrari salta emateko. Gehieneko malda %18koa da. Aurreko edizioan 180 txirrindularik hartu zuten parte eta San Migelgo igoera kronometratuan Felix Valcarcel iruindarra izan zen azkarrena (31:52). Hala ere, ez zen lortu duela 4 urte Carlos Palaciosen ezarritakoa den bora onena gaituzte (30:47). Guaixeko erredakzioa itxerakoan 112 txirrindulari zeuden izena emanda. Dena den, eguraldi bikaina iragarri dute eta askoz gehiago izatea espero dute.

Antolakuntzak hiru hornidura gune prestatuko ditu ibilbidean barna. Lehen Guardetxan egonen da, eta edari eta janari hornidura izanen da. Ihabarren hornidura likidoa prestatuko dute eta, azkena, Altsasun, helmugan, hornidura likidoa eta janariarekin. Antolatzaileek parte-hartzaile-

leen esku jarriko dute laguntza mekanikoa, ibilbide guztian barna. Proba trafikoa zabalik dagoela gauzatuko da, San Migelgo igoera kronometratua izan ezik.

## Opari lotea

Txirrindularien artean babesleek emandako opari lote sorta ederra zozketatuko da eta San Migelgo kronoigoerako onenak sariak jasoko dituzte. Guztiek bapo bazkaltzeko aukera izango dute.

## Izena emateko:

[www.barrankatt.com](http://www.barrankatt.com)

Aurrez izena emateko Barranka taldeko web orrira jo behar da. Bestela, egunean bertan galdetu daiteke, Gure Etxean, antolakuntzak jarritako 250 parte-hartzaileen muga gaituzte ez badago. Probaren informazio guztia, ruto-metroa barne, web orrian dago.

## Josu Etxeberria 2.a Agurainen eta 4.a Lizarran

Larunbatean kadeteen IV. Lizarra Sari Nagusia jokatu zen (46 km). Lizarra taldeko Migel Briz gailendu zen, sprintean (1:09:06). Quesos Albenizeko Josu Etxeberria laugarrena izan zen, bere taldekide Ailetz Lasa bosgarrena, Irabiako Imanol Galarza 14.a eta Quesos Albenizeko Hodei Zia 18.a, denbora berean.

Igandean Agurainen lehiatu ziren kadeteak, Gaztetxoak Sari baliagarria zen proban. Josu Etxeberria bigarrena izan zen eta mendiko saria irabazi zuen.



me Mazuelak irabazi zuen (56:27). Maialen Aramendia laugarrena sartu zen, 2:10era, baina bera izan zen lehen nafarra. Hortaz, kadeteen Nafarroako Txirrindularitza Txapelketa dugu iturmendierra. Gogoratu ere Euskadiko eta Nafarroako erlojupeko txapelketa dela.

## Kirolegia

## Sociedad Deportiva Alsasuaren Asanblada gaur

18:25ean, Iortia Kultur Gunean

Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasuko Kirol Elkarteak bazkideendakobatar orokorra eta ezohikoa deitu du gaur, garagarriaren 26an, ostiralean, 18:25ean Iortia Kultur Guneko gela txikian. Asanbladagarrantzitsua dela adierazi dute. Gai zerrenda ondokoa izango da: aurreko batzarren aktaren irakurketa eta onarpena; kontuen irakurketa eta onarpena; balantze ekonomikoa; egitarauaren, kideen kuotaren eta aurrekontuen onarpena; galde-eskeak; eta juntako hautagaien aurkezpena eta talde eragilearen hautaketa.

## Pilota

## Olaztin pilota txapelketa aurrera

Asteburuan XLIV. Olaztiko San Migel Pilota Txapelketaren 8. jardunaldia dago jokoan.

## Asteburuko partidak

## Ostiralean, 20:00etan:

**4 ½:** Etxeberria / Abraham  
**2. maila:** Beñat-Pablo / Muñoa-Insausti  
**1. maila:** Mikel-Ioritz / Javi-Aies  
**22 urtez azpikoak:** Txipuso-Cordon / Ansa-Agirre

## Larunbatean, 17:00etan

**3. maila:** Salinas-Aritz / Iñigo-Ernesto Jokin-Muñoa / Asier-Victor  
**2. maila:** Ansotegi-Joao / Eneriz-Borrega  
**1. maila:** Iurgi-Javier / Etxague-Lopetegui

## Atletismoa

## Gonzalez bederatzigarrena Araiako krosean

X. Araiako Krosean (6,1 km). Iban Rodriguez (20:24) eta Gemma Perez (24:20) nagusitu ziren. Iban Gonzalez 9.a izan zen (21:42).

## Sakandarrak X. Araiako Krosean:

## Gizonezkoak

|      |                    |       |
|------|--------------------|-------|
| 1.   | Iban Rodriguez     | 20:24 |
| 9.   | Iban Gonzalez      | 21:42 |
| 10.  | Javier Borrega     | 21:50 |
| 47.  | Jose Ramon Ramirez | 24:18 |
| 63.  | David Trevejo      | 25:36 |
| 73.  | Borja Gonzalez     | 26:18 |
| 105. | Jose Luis Mateos   | 29:17 |
| 125. | Eusebio Vinagre    | 31:11 |

## Emakumezkoak

|     |                   |       |
|-----|-------------------|-------|
| 1.  | Gemma Perez       | 24:20 |
| 10. | Mari Gwen Davies  | 29:15 |
| 11. | Ginesa Lopez      | 29:16 |
| 18. | Beatriz Arguelles | 30:07 |
| 35. | Ainhoa Markinez   | 35:43 |

## Kirolegia

# 4 sakandarrek jaso zituzten Migel Indurain bekak

June Kintana, Ioseba Fernandez, Jose Luis Iriarte eta Rosa Jaka dira bekatu sakandarrak

116 kirolari nafarrek Migel Indurain fundazioko bekak jaso zituzten aurreko ostegunean, Gorraizko Gazteluan ospatutako ekitaldian. Beka horiek kirolariek 2014an lortutako emaitzak kon-

tuan hartuta eman zituen aipatu fundazioak. Migel Indurain txirrindulari ohiak "orain arte bezala" jarraitzeko deia egin zien kirolariei, "garaipenak eta pozak lortzeko". Ekitaldian, besteak beste, Iruñeko alkate Joseba Asiron, Osasunako presidente orde Eva Blanco eta Nafarroako Kirol eta Gaz-

tedia Institutuko zuzendari Pruden Indurain izan ziren.

Beka jaso duten 116 kirolarien artean 4 sakandar daude: June Kintana disko jaurtitzaila (bigarrena Espainiako rankinean, 4.200 euro), Ioseba Fernandez irristalaria (lehenen Europako txapelketan, 4.200 euro), Jose Luis Iriarte



June Kintana disko jaurtitzaila.

arku jaurtitzaila (Europako txapelketa, 420 euro) eta Rosa Jaka (kirol egokituak, 440 euro).

## Mendia

## Pirinioetara Larrañeta mendi taldearekin

Uztailaren 4an eta 5ean Oza oihanetik Gabardito aterperaino bitarteko ibilbidea eginen dute

Etzarri Aranzako Larrañeta Mendi Taldeak bi mendi ibilbide antolatu ditu Pirinioetaran. Lehenengorako, garilaren 4an, goizeko 5:00etan jarri dute hitzordua Larrañeta elkartean. Hurrengo ibilbidea egitea da asmoa: Oza oihanetik abiatu, Ibon de Estanesetik pasa eta Lizara aterpera iritsi. Hurrengo egunean Lizaratik abiatu, Bisaurin gainditu eta Gabardito aterpean mendi ibilbidea despeditu. Izena ematea zabalik dago, garilaren 2ra arte, ondoko telefonoetan: 686 662 241 (Pedro) edo 680 702 174 (Manolo). Izena ematekoan 20 euroko fidantza ordaindu beharko da.

## GARILAREN 24TIK 26RA, MONTE PERDIDO ETA ORDESA

Larrañeta Mendi Taldekoak garilaren 24an bueltatuko dira Pirinioetara. 16:00etan abiatuko dira Larrañeta elkartetik. Garilaren 25ean Kingodioten mendi ibilbideari. Nerinetik abiatuta Monte Perdidotik pasako dira, Gorizeko aterpean atseden hartzeko. Hurrengo egunean Ordesa zeharkatuko dute. Izena ematea zabalik dago, garilaren 22ra arte, ondoko telefonoan: 609 223 681 (Mikel). 50 euroko fidantza ordaindu beharko da.

## Triatloia

## Garcia de Eulate 55.a Lekeition

300 triatleta baino gehiago lehiatu ziren eta Jake Birtwhistle eta Gwen Jorgensen gailendu ziren

300 triatletek baino gehiagok hartu zuten parte XXIII. Lekeitioko Triatloian. 750m igerian, 21 km txirrindulan eta 5 km korrikari egin behar izan zituzten. Jake Birtwhistle (56:19:00) eta Gwen Jorgensen (1:03:49) izan ziren onenak. Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate 55.a sailkatu zen (1:07:11) eta bere taldekide Juan Luis Maiza 117.a (1:11:33).

## Motoziklismoa-Enduro

## Irañetako Enduro txapelketa

Ekainaren 13an jokatu zen Moto Club Ziki Team taldeak antolatutako Irañetako Enduro proba. Enduroak motokrossaren abiadura eta trialarentekina hasten ditu. Senior mailan Josu Artola gailendu zen, Jon Otamendi eta Urko Garmendia pilotuen aurretik. Marcos Beraza irintarra ez zen klasifikatu. Junior mailan Josu Baraibar izan zen txapelduna Mikel Endararen aurretik. Trofeoari dago-kionez, Julen Garmendia izan zen irabazlea Denis Elorza eta Jon Ander Mugikaren aurretik. Bukatzeko, scratcha kontuan hartuz Josu Baraibar izan zen onena, Josu Artolaren eta Julen Garmendiaren aurretik.

## Sega



## Bixente Mitxelena Euskal Herriko Ligako irabazlea

Bixente Mitxelenak eta Alaitz Imazek irabazi zuten larunbatean, Tolosan, Euskal Herriko Segala Liga, nazioarteko eran. Azkeneko jardunaldian Jexus Mari Goenaga eta Ainhoa Mazkianar altsasuarra izan ziren onenak, baina txapela Mitxelenak eta Imazek jantzi zuten.

## MAZKIARAN BIGARRENA

Tolosan jokaturako azken proban, lehenen Jexus Mari Goenaga errezil-darra (2:46:12) izan zen eta Altsasun bizi den Bixente Mitxelena bigarrena (2:46:32). Emakumezkoetan Ainhoa Mazkianar izan zen onena (1:40:00). Bi segundora sailkatu zen Alaitz Imaz. Baina Euskal Herriko Ligako sailkapen orokorra kontuan hartuta, Mitxelena (179 puntu) eta Alaitz Imaz (179 puntu) izan ziren txapeldunak. Ainhoa Mazkianar bigarrena sailkatu zen (177 puntu).

## Areto futbola

## Altsasuko Peñak Futbol 7 Txapelketa antolatu dute

Uztailaren 4an jokatu da, Dantzalekuan

Altsasuko Peñak taldeak Futbol 7 Txapelketa antolatu du uztailaren 4rako, Intxostia Kirolak, Lezea Kirolak eta Lasa Kirolak komertzioen laguntzarekin. Txapelketa Altsasuko Dantzaleku futbol zelaietan jokatu da.

## Izena emateko

Altsasuko Gautxori eta Biltoki tabernatan. Harremanetarako: 679 109 208 edo 627 700 631. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu.

## Sega

# Baditugu txapeldunak

Iratxo Botxa Txapelketako final estuan, Iñigo, Guillermo eta Juanjok 20-17 irabazi zieten Jabier, Xabier eta Erik

Iratxo Botxa Txapelketa:

Final laurdenak:

Lirainak 15 / Tximeleta 10  
Jabier-Xabier-Erik 15 / Xabier-Migel-Txutxurrin 11  
Tirillas 8 / Jordano-Guillermo-Iñigo 15  
Desesperados 8 / AHTrik ez 15

Final erdiak:

Jabier-Xabier-Erik 20 / Lirainak 12  
Jordano-Iñigo-Guillermo 20 / AHTrik ez 4  
3. eta 4. postuak  
Lirainak 15 / AHTrik Ez 10

FINALA

Alejandro-Iñigo-Guillermo 20 / Jabier-Xabier-Erik 17

Irurtzungo Iratxo elkarteko botxategiak Iratxo Botxa Txapelketako finalak hartu zituen larunbatean. Guztira 10 hirukote lehiatu dira petanka antzeko joko tradizionalan, bi multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko ligaxka jokatu eta gero, ostegunean eta ostiralean jokatu ziren final laur-



Irabazleak: Alejandro Jordano, Iñigo Carballo eta Guillermo Juango.

denak. Larunbatean finalerdiak jokatu ziren lehenik eta behin, eta ondoren 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida eta final handia iritsi ziren. Final gazte eta estuan, Alejandro Jordanok, Iñigo Carballo eta Guillermo Juango jokatu zuten txapela, Jabier Larraioz, Xabier Agustino eta Erik jokalariei 20 eta 17 irabazi eta gero. Giro ederrean burutu zen, ondoren, sari ematea. Botxak etorkizuna baduela geratu zen, argi eta garbi, Irurtzunen.

## Piragua / Espeologia

## Piragua Izurdiagan eta espeleologia Urbanan



Uztailaren 25en, Mank-ek antolatuta

Mank-ek bi jardura antolatu ditu garilaren 25erako: Izurdiagan ibaian piraguismoa lantzeko aukera eta Urbanako Cristinos (Larraona) kobazuloan espeleologian murgiltzea. Bi ikastaroak garilaren 25ean gauzatuko dira. Piraguakoa goizez, eta espeleologiakoa, aldiz, arratsaldean. 8 urtetik gorakoek eman dezakete izena, eta igeri egiten jakin behar da. Jon Goñi izan-

go da irakaslea. Lagun edo familia artean egiteko proposak dira, baina bakarka ere eman daiteke izena. Bietakoren batean aukeratu daiteke, edo bietan izena eman.

## Garilaren 20ra arte

Izena ematea Mank-eko kirol zerbitzuan egin beharko da (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com), garilaren 20a baino lehen. Ikastaro bakoitzak 5 euro balio ditu.

## Txirrindularitza

## Rural Kutxako Daniel Lopezen garaipena Mungian

Talde sakandarrak 13 garaipen ditu

Igandean Rural Kutxako Daniel Lopezek irabazi zuen Mungia Sagasti Memoriala. Proba esprintean erabaki zen eta Rural Kutxa talde sakandarrarekin Oscar Pelegri, Juan Jose Tamayo eta Pello Olaberria txirrindulariei hartu zien aurrea. Bere taldekide Jacobo Ucha bosgarrena izan zen. Bestalde, larunbatean Seguran jokaturako lasterketa Euskadi Fundazioko Mikel Aristik irabazi zuen. Bigarrena Rural Kutxako Carlos Jimenez sailkatu zen.

Aurreko asteburuan Ataunen jokaturako Euskadiko Txapelketan Rural Kutxako Josu Zabalak 23 urtez azpiko txapela irabazi zuen. Momentuz denboraldian 13 garaipen daromatza talde sakandarrak.

## Mendi lasterketak

# II. Triku Trailaren txanda

Igandean, 9:30ean Etxarriko kanpinetik abiatuko da Etxarriko mendi lasterketa. Dorsalak agortu dira

Triku Trail Kirol Taldeak hainbat babesleren laguntzarekin batera –Etxarri Aranazko Udala, Xalok kirol nutrizioa, Sakana Kooperatiba eta makina bat establezimendu eta komertzio– II. Triku Trail mendi lasterketa antolatu du igandean. Proba Etxarri Aranazko kanpinetik abiatuko da, 9:30ean (21 km eta 1.400 metroko desnibel positiboa). Probak 350 parte-hartzailearen muga dauka –aurreko urtean 300eko muga zegoen eta bete egin zenez, aurten beste 50 pertsona gehiagorendako tokia prestatu dute–, baina dagoeneko ez da dortsalik geratzen. “Oso pozik gaude. Ez dugu proba gehiegi masifikatu nahi, bestela kalitatea galduko duelako. 350 korrikalari horiek zaindu nahi ditugu, zerbitzuekin eta lasterketarekin gustura gera daitezen” adierazi dute Triku Trail taldeko Asier Beltzak, Mikel Sasiainek eta Aritz Munarrizek.

## Harizti, pagadi eta trikuharrietatik barna

Etxarri Aranazko Trikuharrien ibilbidea oinarri hartuta, ibilbide hori luzatu dute antolatzaileek. “Gurean halakomendialtuak eziza-

## Txikiendako Trikutxikia



Aurtengo berrikuntza haurrendako Trikutxiki lasterketa izanen da, 9:45ean Etxarriko Etxarriko kanpinetik izanen dena. “Proba hau ez lehiakorra da, neska-mutikoei ongi pasatzeko. Ibilbidetxo bat prestatu dugu haurrei korrika egiteko aukera emateko. Inork ez du irabaziko ez galduko, guztiok jasoko dutelako saria. Izena igandean bertan eman behar da, eta dohainik izango da. Igandea txikiendako ere jai eguna izatea nahi dugu. Horregatik parte hartzerantz animatzen ditugu neska-mutikoei” diote Triku Trail antolatzaileek.

tearen konplexurik ez dugu izan behar. Sekulako basoa dugu, kilometro pila sartzea ahalbideratzen duena, kalitatezko proba antolatzeko. Korrika egiteko espeziala da. Gorabeheratsua da, malda gogorak ditu, suabeagoak... ibilbide zirrargarria da, gogortasun asko

ematen dio probari eta aurreko urtean jendea gustatu zitzaion. Horregatik erabaki genuen ibilbidea mantentzea” adierazi du Mikel Sasiainek. “Jendea harrituta gertatzen da, ez dutelako imajinatzen halako basoa dagoenik” gaineratu du Aritz Munarrizek.

Horrela, kanpinetik aterata Maitzegurretik pasatuko dira korrikalariak, eta segidan Auntzetetik. Ibilbidean aurrera eginez, Axioren putzua pasatu ondoren Lizarrustira helduko dira. Ondoren Txaradigorri trikuharrira joko dute. Horixe izango da eremurik gogorrena, desnibel handiena baitu. Hortik Hirumugeta igoko dute, Otxentara jaitsi eta Fagamendi igotzeko. Handik haritz zaharren ibilbide zoragarritik jaitsiko dira, eta Etxarriko kanpinetik helmugan despedituko da proba.

Iaz 265 korrikalarik osatu zuten proba, tartean 30 sakandarrek. Ismail Razga (1:44:25) eta Uxoa Irigoien (2:06:31) gailendu ziren.

## Sariak, opariak eta auzatea

Antolatzaileek 1.200 euro banatuko dituzte sarietan. Lehendabizikogizonak eta emakumezkoak txapela, trofea eta 300 euro jasoko dituzte, bigarrenek 200 euro eta trofea eta hirugarrenek 100 euro eta trofea. Lehen beteranoendako, lehen sakandarrendako eta etxarriarrendako ere trofeoak izanen dira eta Etxarriko kanpinetik dagoen lehen kanpistak txapela jantziko du. Horretaz gain, korrikalari guztiek kamiseta teknikoak eta opariak jasoko dituzte eta proba

## Katarain txapeldun



Urretxun jokatuako Irmoko Igoeran protagonista sakandarra izan dugu, Zabalarte klubeko Beñat Katarain Razkin izan baitzen probako txapelduna (16:16). Lakuntzarrak 13 segundo atara zizkion Ismail Razga santurtziarrari (16:29). Emakumezkoetan Ainhoa Lendinez elgoibarra gailendu zen (12:48).

ondoren auzate ederra egonen da guztiondako. Gainera, sorpresak iragarri dituzte.

Igandean 130 boluntariorik gora ariko dira lanean. “Triku Trailaren atzean lan asko dago. Abendutik astero biltzen gara, lasterketa guztietan triptikoak banatu ditugu... Bestetik, diru asko behar da antolatzeko. Horregatik oso eskertuta gaude babesle guztiei, bakoitzak bere aletxo jarri duelako. Eta baita bolondresei ere. Probaren atzean herria dago eta herritar guztiak daude prest laguntzeko. Eskertuta gaude” azpimarratu dute.

# Dispertsioaren kontra 11 aldiz igo zuen Hartzabal Aritz Munarrizek

Hainbat kirolari, lagun eta senitartekoen laguntza izan zuen

Aritz Munarriz etxarriarrek larunbatean 12 orduz jarrian Hartzabal mendira igoerak egiteko erronka hartu zuen bere gain, baina erronka hori dispertsioa salatzeko erabili zuen. 12 orduz aldapa igo eta jaistearen gogortasunarekin, euskal preso senideek euren senitartekoak ikusteko bizi behar dituzten traba guztiak agerian utzi nahi izan zituen 28 urteko mendi korrikalariak, besteak beste, berak ere kartzelara bidaiatu behar duelako, lagun bat bisitatzeko. “Erronka horrekin Aritzek dispertsioa zer nolako aldapan gorako borroka den irudikatu nahi izan du. Sakanako presoak bisitatzeko astebururo 10.000 kilometroko batez bestekoa egiten da, horrek dauzkan arriskuekin eta kostu ekonomikoekin. irudikatzea. Dispertsioak dirauen 26 urte hauek 16 hildako, istripu ugari eta sufrimendu latza utzi ditu. Euren senideak bisitatzeko bidean 25 egunero gertatzen da istripuren bat” adierazi zuen preso, exiliatu eta deportatuen defentsan lan egiten duen Sare taldeko kide Mikel Mundiñanok.

## Munarrizek 11, Fitik 10 eta Nourdinek 7

Larunbatean goizeko 7:00etan abiatu zuen Aritz Munarriz Etxarri Aranazko plazatik, alboan Nourdine Jdi lakuntzarra eta Fidel Jimenez “Fiti” etxarriarra zituela, beste makina bat lagunekin batera. Herriko biltegian 0 gunea prestatu zuten eta hortik abiatu ziren Hartzabalera igoera guztiak. Guztiz arrakastatsua izan zen ekimena. Makina bat kirolari ezagunek eta herritarrek eman zioten babesa Munarrizi. Dispertsioaren kontrako euren babesa azaltzeaz gain, igoeratan lagundu zuten. Bertan izan ziren, besteak beste, Aitor Zubieta, Aritz Lasa, Peio Martinez de Eulate eta Oskar Lasapilotariak, Alex Txikon eskalatzailea, Imanol Goñi eta Xabier Zarranz korrikalariak, Lasterbidean taldekoak, Gorka Verdugo txirindulari ohia, Maite Ruiz de Larremendi eta Yanira Aristorena palistak, Sakana Bizirik taldekomendikorrikalariak, Etxarriko futbol taldeko kideak, Munarrizen senitarteko eta lagunak eta, jakina, Nourdine Jdi eta Fiti korrikalari sakandarrak, beste asko eta askoren tartean. Nourdinek eta Fitik lehendabiziko igoera egin

zuten Aritzekin eta ekimenarekin jarraitu zuten, Munarrizen erronka bere eginez. Fitik 10 igoera egin zituen eta Nourdinek 7. Aritz Munarrizek goizeko zazpietatik arratsaldeko zazpietara, 12 orduko epe horretan 11 igoera egin zituen Hartzabalera, 74 km eta 6.000 metroko desnibel positiboa. Eta hori guztia Hartzabal igoeran bildutako herritarren txalopean.

Erronka burutzen zen bitartean, Etxarri jarritako pantailan Hartzabaletik bidalitako irudiak eskaini ziren eta burututako igoera bakoitzeko itxafigua jaurti zuten. Arratsaldeko zazpietan Etxarri Aranazko plazan burutu zen ekimena, jende ugari bildu zuen ekitaldiarekin. Han preso eta senitartekoei zigortzen dituen dispertsioarekin bukatu behar dela azaldu zuten. “Behar duguna da konpromisoak hartzen jarraitzea, eragilez eragile eta norbanakoz norbanako, hau konpondu nahi badugu. Ezin dugu gehiago onartu gure senideak hain urrutiegotea. Lehen pausua da presoak Euskal Herriara ekartzea eta hurrena denak etxean izatea. Horretarako erronka asko dauzkagu aurretik bidean” azaldu zuten Saretik.

## 74 km eta 6.000 metroko desnibel +



Munarrizek kontentua dago egindakoarekin. Une oro erritmoari eutsi ziola aipatu du eta ez zuela behaldirik izan. “Egia esan uste nuena baino errazago egin nuen. Eguerdi parean mundua gainera erortzen hasi zitzaidan, baina berehala eman nion buelta eta arazorik gabe jarraitu nuen... Ikusgarria izan da, horrenbeste jendearekin. Horrek ere bultzatzen du” aitortu zuen. Facebookean azaldu duenez “familiko babesakin momentu guztiyean, launek, Sakana Bizirik mendi taldea, herritarrek, Asier Beltza, Ana Carmen Huarte eta herritarren harrera izugarri! Presuen senideak, hau zuen laguntza! Meziezubiakos! Maite zaituztegiakos!”. Eguna gogorra izan zela gaineratu du. “Gorra egune, 12 ordu, 11 igoera, 74 kilometro eta 6000 metroko desnibela goraka. Izugarri, ezta? Ba izugarriyo da presuen guraso, senide, lagunak... ein bierra izeten ttubien kilometro piyek berayei bixitetzeko, zer da gorrro? Ezto eskubideik!” gaineratu zuen.



# Sanjoanak eta sanpedroak

**Partekatu**  
zure argazkiak  
erabili

#SakanakoFestak traola

## Izurdiaga

### Asteburua festei emana

#### >> Garagarzaroak 26, ostirala

**20:00etan** Txupinazoa.  
**20:30ean** Kontzertua: Hamaika Aldiz.  
**22:30ean** Kalderete afaria.  
**1:00etan** Dantzaldia Iñaki Bizkai akordeoi-lariarekin.

#### >> Garagarzaroak 27, larunbata

**11:30ean** Forjarrien erakustaldia eta artisau azoka, herri zaharrean.  
**13:00etan** Bermuta. Jangela eta sukaldea edonorendako erabilgarri izanen dira.  
**16:00etan** Mozorrotuen etxez etxeko erronda, Lakuntzako etxetik tabernara.  
**20:00etan** Dantzaldia DJ Oscarrekin.  
**22:30ean** Afaria, "trajej" jantzita.  
**1:00etan** Dantzaldia.

#### >> Garagarzaroak 28, igandea

**11:00etan** Meza. Irteeran otamena.  
**12:00etan** Puzgarriak futbol zelaian.  
**14:30ean** Herri paella jatea.  
**17:00etan** Mus.  
**19:00etan** Txokolate jatea.  
**20:00etan** Dantzaldia Iñaki Bizkai akordeoiariarekin.  
**22:00etan** Hondarren afaria.

## Uharte Arakil

#### >> Garagarzaroak 26, ostirala

**12:00etan** Uharteko erraldioen konpartsa.  
**13:00etan** Alhondiga.  
**14:30ean** Herri bazkaria. Parrillada. Udalak sua, ardoa, ogia, mahaiak eta aulkiak jarriko ditu.  
**18:00etan** Galtz-Orratzen dantza saioa.  
**19:00etan** Bordetxe abere zirkoa, pilotaleku zaharrean.  
**20:00etan** Alhondiga.  
**20:00etatik 22:00etara** Biluzik, bertsio-taldea.  
**20:00etan** Zezensuzkoa.  
**20:00etatik 22:00etara** Jai gauteque Tirri & Terry.

#### >> Garagarriak 27, larunbata

**10:00etan** Dianak gaiteroekin.  
**12:00etan** Erraldoi konpartsen kontzentrazioa: Aurizberri, Irurtzun eta Funes. Uharteko Arakilgo konpartsa omenaldia 15. urteurrenean.  
**13:00etan** Alhondiga plazan.  
**14:30ean** Herri bazkaria.  
**18:00etan** Biri-biri txapelketaren finala eta kontsolazio finala.  
**19:00etan** Larruzko paleta pala partida: Arizaleta-Mariñelarena / Plano-Labiano.  
**20:00etan** Alhondiga.  
**20:00etatik 22:00etara** Enemigos Intimos, Joaquin Sabinaren bertsioak.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**00:30etik 4:30era** Dantzaldia Ttanttaka taldearekin.



## Arruazu

### Festa egunek hemen die

#### >> Garagarriak 26, ostirala

**15:00etan** Bakutzek bee itxeko ataaiya garbitzia.  
**19:00etan** Suzuriya Ostatutik!  
**19:30ean** Meza San Pedro baselizen.  
**20:00etan** Meenduba Sanpedronon. Nehi dunek baserritarres jantziik!  
**22:00etan** Zezensuskua Tximooneko ataatik.  
**23:00etan** Arbazuko Zortzikua herriko plazan.  
**23:00etan** Herri afaaiya Itur-gain elkartien.  
**00:30etik 04:30era** Dantzaldia Orotsekin.

#### >> Garagarriak 27, larunbata

**18:00etan** Jolasak haurrendako.  
**20:00etan** Gazta ta ardua betiko lekuben.  
**20:00etatik-22:00etara** Dantzaldia Gozo-Gozokin.  
**22:00etan** Zezensuskua Tximooneko ataatik.  
**01:00etatik 04:00etara** Dantzaldiek ta leixterkak Gozo-Gozokin.

#### >> Garagarriak 28, iyendia

**12:00etan** Meza Nausiya.  
**17:00etan** Mus Iñeztura Itur-Gain Elkartien.  
**17:00etan** Jolas parkia haurrendako.  
**20:00etan** Gazta ta ardua guziyendako.  
**20:00etan** Biñekako Pala Erakustaldiya.  
**20:00etatik 22:00etara** dantzagarriyek Tximeletaakin.  
**22:00etan** Zezensuskua Tximooneko ataatik.  
**22:15ean** Herri afaaiya Herriko Itxen.  
**00:30etik 03:30era** Dantzak ta jauziyek Tximeletaakin.

#### >> Garagarriak 29, astelena

**15:00etan** Kuadrilen arteko bazkaaiya.  
**17:00etan** Itxes-itxeko erronda Kaleaundi Bandaakin.  
**18:00etan** Haurrendako Bordetxe Abere Zirkuba.  
**19:30ean** Haurrendako txokolatada.  
**20:00etan** Gazta ta ardua guziyendako.  
**20:30ean** Burus-buruko Pala Erakustaldiya.  
**19:00etatik 22:00etara** Iruña Taldeko Fanfarria.  
**22:00etan** Zezensuskua Tximooneko ataatik.  
**23:00etan** Herri parrillada plazan.  
**00:30etik aurrera** Gaupasa Ostatubenenekatu artio.

## Arbizu

#### >> Garagarriak 26, ostirala.

### Preso eta iheslarien eguna eta kintoen eguna

**10:00etan** Dianak Sakanako trikitixa eskolarekin.  
**11:00etan** Kintoak, pixkeet eskien.  
**12:00etatik 14:00etara** Puzgarriak plazan.  
**12:00etan** Aate (Zotola).  
**13:00etan** Buruhaundiak.  
**13:00etan** Triki-bertsu bermutha.  
**13:30ean** Tortilla txapelketa (ekarri tortilla etxetik prestatuta).  
**17:00etan** Piperropilen tailerra.  
**18:00etan** Helduen ginkana, froga nagusia.  
**19:00etatik 22:00etara** Herriko musikariak.  
**20:00etan** Aate eta piperropilen dastaketa.  
**20:00etan** Konzentrazioa.  
**23:30ean** Ginkanaren jarraipena.  
**01:00etan** Zumba.

#### >> Garagarriak 27, larunbata.

### Jubilatu eguna

**10:00etan** Dianak herriko fanfarrearekin.  
**11:00etatik 15:00etara** Zorri azoka.  
**12:00etatik 14:00etara** Puzgarriak plazan.  
**12:00etan** Altxorraren bila.  
**12:00etan** Jubilatu eguna.  
**12:30ean** Herriko helduenei oroigarri banaketa.  
**12:30ean** Aate (Sare).  
**13:00etan** Buruhaundiak.  
**13:00etan** Jubilatu eguna.  
**13:00etan** Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.  
**15:30ean** 4x4.  
**16:30ean** Truk txapelketa.  
**18:30ean** Bordetxe abere zirkoa.  
**19:30ean** Daniarrak vs Arbizuarrak desafioa.  
**20:00etan** Aate.  
**20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**22:00etan** Zezensuzkoa.  
**24:00etatik 3:30era** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**>> Garagarriak 28, igandea.**  
**Haurren eguna**  
**12:00etan** Aate (Jubilatuak).  
**12:00etatik 14:00etara** Jolas parkea.  
**13:00etan** Buruhaundiak.  
**13:30ean** Elai Alai dantza taldea.  
**14:30ean** Haurren bazkaria.  
**16:00etatik 19:00etara** Jolas parkea.  
**16:30ean** Mus eta brixka txapelketa.  
**20:00etan** Aate eta buruhaundiak.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia The Trikitiens taldearekin.  
**22:30ean** Les tambours de feus ikuskizuna.  
**23:15etik 1:00etara** Dantzaldia The Trikitiens taldearekin.

## Unanu

### Asteburua festari emanak

#### >> Garagarriak 26, ostirala

**12:00etan** Txupinazoa eta auzatea.  
**13:00etan** Poteo eroa.  
**15:00etan** Bazkaria.  
**18:00etan** Haurrendako joko tradizionalak.  
**20:00etan** Auzatea.  
**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
**22:00etan** Afaria.  
**00:00etatik 4:00etara** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.  
Trikitixa egun osoan zehar.

#### >> Garagarriak 27, larunbata.

**Mozorro eguna**  
**11:00etan** Gosaria.  
**12:00etatik 14:30era** Haurrendako jolas parkea.  
**14:30ean** Herri bazkaria.  
**17:00etatik 19:30era** Haurrendako jolas parkea.  
**20:00etan** Auzatea.  
**20:00etan** DJ Garate.  
**22:00etan** Afaria.  
**00:00etatik 5:00etara** DJ Garate.  
Musika egun osoan zehar Elutxa txarangarekin.

#### >> Garagarriak 28, igandea

**11:00etan** Gosaria.  
**12:00etan** Pilota partidak.  
Haurrak: Araña-Senar / Astiz-Araña Kadeteak 4 t'erdian: Olaetxea / Nazabal Kadeteak: Ansotegi-Ganboa / Otxoa-Lazkoz  
**15:00etan** Bazkaria.  
**17:30ean** Txamukos mariatxia.  
**20:00etan** Auzatea.

## Lizarragabengoa

### Hiru festa egun

#### >> Garagarriak 26, ostirala

**19:30ean** Auzatea.  
**21:30ean** Afaria.  
**11:00etatik 02:30era** Musika.

#### >> Garagarriak 27, larunbata

**12:00etan** Etxez-etxe. Trikitilariak.  
**16:00etan** Puzgarriak.  
**17:00etan** Pilota partidak. Piñata.  
**18:30ean** Aizkora.  
**19:30ean** Auzatea.  
**21:30ean** Afaria.  
**11:00etatik 2:30era** Musika.

#### >> Garagarriak 28, igandea

**12:00etan** Etxez-etxe. Trikitilariak.  
**16:00etan** Puzgarriak.  
**17:30ean** Ginkana.  
**18:30ean** Txokolatada  
**19:30ean** Kontzentrazioa.  
**20:00etan** Auzatea.

## San Pedrozelai bilgune

**A**ltsasuarrek egun handia ospatuko dute astelehenean. 10:00etan udalbatzak, Altsasuko Txistulariekin batera, San Pedroko zelairako bidea hartuko du. Hara iritsi eta auzatea izanen da. Zortzikoa dantzatzeko aukera izanen dute batzuk. Besteak bazkaria prestatzen, zelaiko tabernetan poteatzen edo mezan egonen dira.

### Zortzikoa eta beste

14:30 aldera mahaira eseriko dira lagun taldeak. Aurretik prestatu-

tako arkume eta bestelako jakiak dastatzera. Askok mahaitik altxatzerako 17:00ak izanen dira. Udalbatzak zelaian barrera agurra egiten du eta ondoren puruen banaketariarekin dio. Egiteko horien ondoren alkateak zortzikoa dantzatzeko txanda iritsiko da. Zelaikoa jaso eta etxerako bidea hartzen dutenek 20:00etatik 1:00etara Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia izanen dute plazan. Askok zelaiko tabernetan poteoa luzatuko dute eta eguraldiak lagun duz gero, afaltzera geldituko denik izanen da ziurrenik.

### Oharrak: ingurumena zaintzeko deia

Udaletik jakinarazi dutenez, 10:30erako zelairako bidea itxita egonen da eta autoz joan nahi dutenek Urdiaindik abiatu behar dute. Ordu horretatik aurrera autoak udal igerilekuetan eta aldameneko futbol zelaian aparkatzeko aukera izanen da. Mugikortasun mugatua dutenek bakarrik izanen dute pasatzeko aukera.

Ingurumena zaintzeko deia egin du udalak, guztia joaterakoan bezain garbi uzteko. Horrega-



tik, zelaian barna jarritako edukiontziak eta kontainerrak erabiltzeko eskatu du. Aldi berean, suak

partekatze deia egin du. Suak zuhaitz txikien ondoan ez egiteko eskatu du ere.



## Lakuntzako antzerki tailerrak **Blas Alegriaren** obra bat moldatu du

**Idazle lakuntzarraren Aña Mari lanaren obraren egokitzapena, Ama Mari, eskainiko dute larunbatean, 19:00etan eta 20:00etan, Lakuntzako plazan**

Irailean hasi zen Lakuntzako antzerki tailerra. Helduak eta gazteak, zazpikote bat Jon Zubiagaren, Osoronen esanetara jarri zen. Astean ordu eta erdiko saioak egin dituzte eta ikasturtean zehar hainbat antzerki teknika landu dituzte: gorputz adierazpena, ahotsa, talde lotura... Hala martxora arte aritu ziren. Orduan jaso zuten *Ama Mari* antzezlan eta hura prestatzeari ekin zioten.

Oihane Andueza arduratu da Alegriaren obra moldatzeaz. Jatorrizkoan Blas Alegriak jainkoari bizitza eman nahi dion umezurtz baten pasadizoak kontatzen ditu. Izaskun Igeltzek esan digunez, Anduezaren bertsioan hiru garai agertzen dira. Lehena 30eko hamarkadan kokatuta dago. Bigarrenean Alegria beraren beneta-

ko arreben fikziozko pasarteak jaso dira. Azkenik, gaur egungo gazte bat. Belaunaldi batetik bestera seme-alaben amarekiko erlazioa nola aldatu den, gerraren aipamenak, gazteei kritika eta beste jasotzen ditu antzezlanak.

Antzerki tailer eskaintza, estreinakoz joan den urtean egin zen eta Igeltzek esan digunez, segida izanen du: "tailerra sortu zela jakin ez zutela eskaera egin dute eta animatuta daude. Gainera, kultur etxea izanik, halako dinamika sustatu eta jendearen sentsibilizatu nahi da".

### Obra

Lakuntzako Baratzterrekalde baserrian bizi den familiaren berri emanez, *Aña Mari* misioetako antzezlanarekin, Blas Alegriak Euskararen Adiskideak elkartearen antzerki lehiaketan 2. saria eskuratu zuen 1928an. 75 pezeta-ko saria eskuratu zuen (Lehen saria Fernando Urkia arbizua-

### Antzezleak

Garazi Corroza, Xabier Alegria, Josune Goikoetxea, Jasone Auzmendi, Larraitz Amadoz, Oihane Andueza eta Izaskun Igeltz. Haiekin batera Jasone Etxebeste klarinete joleak eta Lakuntza Kantuz taldeak parte hartuko dute antzezpenean. Maindire batzuk osatuko dute eszenografia. Igeltzek azaldu digunez, "Alegria apaizateko atetangelditu zenez, elizaren eta plazaren arteko espazioan antzeztuko dugu obra".

### Blas Alegriaz gehiago jakiteko:

[www.guaixe.eus/sakana/1386950945200](http://www.guaixe.eus/sakana/1386950945200)

rrarendako izan zen). Urte hartan bertan argitaratu zen. Lakuntzako Baratzterrekalde baserrian bizi den familiaren berri ematen du lanak.

### Tarima Beltza Deikaztelun

Altsasuko antzerki amateur taldeak *Nunca fuimos heroes* antzezlan larunbatean, 20:30ean, antzeztuko du Deikaztelun. Jon Barbarin zuzendariaren gidaritzapean Mertxe Herrerak, Juan Manuel Herrerok, Marta Diegok, Josu Castillock, Natalia Martinek eta Amaia Mintegik jokatu dituzte pertsonaiak. Bakarrik sentitzen diren pertsonaiek osatzen dute obraren ardatza.

### Kontzertu bikoitza Arbizuko kanpenean

Bihar, 20:00etan, Rocio Madreselva ariko da eta, 24:00etan, Lena Andrea Ullrich

Arbizuko kanpenean egoitza duen Amari yoga magikoko eskolak biharko kontzertu bikoitza iragarri du. Lehena Rocio Madreselvarena da. Ahotsaren eta gitarraren laguntzaz "barrurantz bidaiatzeko" eskaintza egingen du. Lena Andrea Ullrich txirula eta akordeoia jotzen ditu eta kantuan aritzen da. Arimari zuzendutako kantuak eskainiko ditu.

### Iragi eta Azkonaren kartelak iragarriko ditu Irurtzango festak

Irurtzango aurtengo festen kartel iragarlea Aitziber Iragui Morenok eta Iñaki Azkona Muruamendi arazek egindakoa da. 11 proposamenen artean aukeratu izan da. Festa egitarauaren azala izanen da kartela. Kontrazala, berriz, haurren mailako kartel saritua izanen da. Hura June Ijurko Legarrak egin du eta 10 kartelen artean berea aukeratu dute.



### Rockanroll dosia

Altsasuko Urtzi tabernak 25 urte bete ditu eta bihar, larunbatean, 23:00etan, urteurrena ospatzeko kontzertua antolatu du. La Banda del Jefe Bigun talde sakandarrak rock and roll klasikoaren bertsioak joko ditu: Tequila, Miguel Rios, Rolling Stones, Deep Purple, Barricada edota AC/DC renak.

Bestalde, egun eta ordu berean Altsasuko Gernika tabernak Barakaldoko The Longboards taldearen kontzertua hartuko du. Surf-rock instrumentala jotzen duen hirukoak hiru disko argitaratu ditu.

## bazterretik

Andoni Igoa

### Eraikin Singularra

ETB 2 katean, "Basque country vertical" izeneko programa bat ematen dute. Bertan Euskal Herriko eraikin bereziak rapelatzen dituzte eraikinaren historia kontatzen duten bitartean. Aurrekoan eraikin oso ezagun bat ikusteko aukera izan nuen, Iruñeko Eraikin Singularra, alegia. Eraikin honen beste ikuspegi batzuk antzeman zitezkeen bertan. Aurkezlea teilatutik, fatxadatik zehar rapelatzen jaisten

zen heinean, eraikinaren bitxikeri batzuk kontatu zituen. Noiz eta nola sortu zen azalduz.

1960. urtean Iruñeko udalari hiriko lursail esanguratsuenetakobatean etxebizitzaren eraikin bat egitea bururatu zitzaion. Eraikina Gotorlekuaren baluarte baten parean kokatuko zenez, Gotorlekuaren haria jarraitu beharko zuen diseinuak, baina aldi berean gertaera moderno batean bilakatu beharko zen. Eraikinak hiripaisajebateanelementu dominatzailea izan beharko

zuela azaltzen zuen proiektu garai-lead, horregatik bere bolumenak urrunetik argi ezberdintzea zen helburuetakobat, Gotorlekuaren forma eta historia errespetatuz.

Beraz, proiektuaren asmoa bolumen desberdinak osatzea zen, barne eta kanpo espazioak bertan integratuz. Obra 1971an hasi eta 1976an amaitu zen.

Eraikinaren beheko plantak lokalez eta dende osaturik daude, bolumen bat sortuz. Hauen gainetik planta huts bat aurrekusi zen,

lorategi batekin betetzeko, eta honek, aldi berean, etxebizitzako hiru dorreak lotzeko balio zuen.

2 dorre berdinak dira, planta pentagonal eta 14 pisu dituztenak. Hirugarren dorrea, aldiz, planta karratuko da eta besteak baino 2 planta baxuagoa da. Altuera erdian planta huts bat dute dorreek, bertan aldemenendako aisialdi gune bat sortuz, hots eta hiri kutsaduratik aparte.

Dorre altuenaren gailurrean, udan eguzkia hartzeko gune bat proiektu-



tatu zen igerileku eta guzti, alde-menen aisiarako.

## G

asteko >> : eguraldia

| ostirala        | larunbata       | igandea         | astelehena      | astearte        | asteazkena      | osteguna        |
|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|
|                 |                 |                 |                 |                 |                 |                 |
| euria: 5%       | euria: 5%       | euria: 5%       | euria: 5%       | euria: 5%       | euria: 10%      | euria: 18%      |
| Min: 15 Max: 27 | Min: 13 Max: 24 | Min: 13 Max: 29 | Min: 14 Max: 28 | Min: 15 Max: 32 | Min: 15 Max: 27 | Min: 14 Max: 27 |

: temperatura >>

|            | Max. °C | Min. °C | euria l/m <sup>2</sup> |
|------------|---------|---------|------------------------|
| Irurtzun   | 32.5    | 11      | 0.8                    |
| Etxarri A. | 31.5    | 6.6     | 0                      |
| Altsasu    | 30      | 8       | 0                      |
| Aralar     | 23.5    | 6.2     | 5.7                    |
| Urbasa     | 27.8    | 6       | 2.9                    |

: ilargiaren aldia >>

| ilbete | ilbehera | ilberri | ilgora |
|--------|----------|---------|--------|
|        |          |         |        |
| 2      | 8        | 16      | 24     |

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide sarituak

- 1.- **Imanol Miranda**  
(Uhartte Arakil)
- 2.- **Nerea Mazkieran**  
(Altsasu)
- 3.- **M<sup>a</sup> Eugenia Ijorra**  
(Etxarri Aranatz)
- 4.- **Pello Astiz**  
(Ihabar)



# >> 11 galdera

Mari Carmen Oteiza

Uhartte Arakilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak 15 urte

Testua: Maider Betelu Ganboa

1. **Uhartte Arakilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak 15 urte beteko ditu. Nola sortu zen?**  
Txikiak ginenean erraldioen oroitzenak genituen, baina erraldoiak desagertu ziren. 40 urtez konpartsarik gabe egon ondoren, erraldoiak berreskuratzea bururatu zitzaigun 2000 urtean, ni kultur zinegotzia nintzela. Aspaldiko argazki bati esker orduko errege eta erreginaren erreplika egin genuen. Guk jarri genizkien izenak: erreginari Mikaela, San Migelengatik, eta erregeari Donato, San Donatogatik.
2. **Zer gertatu zen antzinakoekin?**  
Etxarri Aranatz utzi zizkieten festa batzuetarako eta nonbait, ur erauntsi batek harrapatu zituen. Harri-kartoizkoak ziren eta ezin izan ziren konpondu.
3. **Nola sortu zenuten konpartsa?**  
7 pertsonak sortu genuen, eta 7 horietatik 6 eramaileak ziren. Irurtzongo konpartsaok izan ziren

gure aita-ama pontekoak. Beraiekin ikasi genuen erraldoiak eraman eta dantzatzeko. Hasieratik Etxarri Aranatzko gaitarien doinu eta dantzatu ditugu. Lehen irteera oso polita izan zen. Erregeak lehen aldiz Juan Carlos eta Antonio Astizek dantzatu zituzten eta ekitaldian Pedro Ansa eta Migel Zubietta omenendu genituen, antzinako erraldoiak dantzatu zituztelako.

4. **Laster familia handitu zenuten...**  
Bai, 2002an errege bikoteari gehitu genizkien Felipe Gorriti konpositore uhartearren erreplika, 1750. urtean Uhartte bizi izan zen Jauregiko Martija sendatzailearen erreplika; eta, erregina txikia, Txiki. Beira-zuntzekoak dira.

5. **Horetaz gain Uhartte Arakilen erraldoi txiki asko daude ezta?**  
Bai. Lau herritarrek euren erraldoi txiki propioa dute eta festetan gurekin ateratzen dituzte.

6. **Zenbat buruhandi dituzte?**  
Sei: indiarra, drakula, sorgina, deabrua, beltzarana eta panplonika. Konpartsaekin hasi ginenean bizeuden, sorgina eta deabrua. Beltzarana eta panplonika aurretik egon ziren buruhandien erreplikak dira, beira-zuntzekoak. Gainontzekoak harri-kartoizkoak dira. Oso pozik gaude 14 eta 19 urte arteko herriko neska-mutilekin, buruhandiak ateratzeko ez baitute huts egiten. Harrobederra dugu.

7. **Zenbat kide zaudete konpartsan?**  
Hasieran 7 ginen eta egun 22. Hasi ginen guztiok jarraitzen dugu. Gazteenak 20 urte ditu eta helduenak 59. Gazteei buruhandiekin hasia animatzen diegu, gero erraldoiak eramatera pasatzeko. Horrela egin dute egun erraldoiak dantzatzeko.

dituzten hiru gaztek. Ateak zabali ditugu, nahi duen oro ongi-etorria izango da.

8. **Noiz hasten zarete denboraldia prestatzen?**  
Martxotik aurrera hasten gara erraldoiak mantenu lanak egiten eta entseatzeko. Aurreko urtean eskulan tailerrekoek erretokatu zituzten eta primeran daude. Ostiralean entseatzeko dugu.

9. **Irteerak egiten dituzte?**  
Bai, baina lehen gehiago. Murrizketek guri ere eragin digute. Orain diru-laguntza estuagoa da, 2.000 euro urteko. Eta gastuak handiak: erraldoiak emateko kamioia, gasolina, gaiteroei ordaintzea, irteerak... Hala ere, urtero Etxarri Aranatzko festetara eta uztailean 25ean Itsasperrira joaten gara, Arakilgo bailararen egunera. Eta bi urtetik behin Funes eta Uhartte Iruñera.

10. **15. urteurrena dela eta, festetako suziria bota duzue.**  
Bai, eta eskertuta gaude. 15 urte hauetan bildutako argazki, oroigarri, zapi eta materialarekin erakusketak egin dugu. 3 konpartsa gonbidatu ditugu, Funeskoa, Irurtzongoa eta Aurizperrikoa, bihar, larunbatean, 12:00etan 15 erraldoi ariko dira dantzan Uhartte. Omenaldiarekin eta herri bazkariarekin ospatuko ditugu 15 urte hauek.

11. **15 urtetan, pasadizo ugari.**  
Bai. 2010eko maiatzaren 13an sekulako ur erauntsia bota zen. Eskolako eta frontoiko baxuak uholdeak harrapatu zituen. Erraldoiak mojen eraikina zenera eramanez genituen, irteera bat genuelako, eta horregatik salbatu ziren. Aldiz, buruhandiak kaltetu ziren eta berriak egin behar izan genituen.

## Eskuorriak, kartelak... egiten ditugu

Egin zure eskaria

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

%5eko deskontua

argitalpen eta diseinu lanetan Bierrik Fundazioko bazkideei